

ISILLIK =

PEDAGOGI ALDIZKARIA

7. alea 1986. ABENDUA

300 pzta.





BILINTX **LIBURUDENDA**

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermín Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.

Esterlines 10ean,

Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar....., aurkituko dituzue.

e|kar s. a.

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A


Esterlines, 10
Telef. 426319
DONOSTIA-3

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....

UK 5788
VR-028/7

1

ISILIK =
PEDAGOGI ALDIZKARIA 7. aldia 1986. ABENDUA 300 orria



AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO
45448
1987 MAL. 27



Argitaratzaile:
G.I.L.E.

Egileak:
Irakasle, guraso,
sikologo, pedagogo
eta beste

Azala:
Irakasle Elkartea

Diseinugile:
Irakasle Elkartea

Inprimaketa:
Gráficas Lizarra

Konposaketa:
Lente

Dep. Leg.:
S.S. 509/82

**GIPUZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEA**ren
ardurapean.

Oharrak:
Idazlanak bidali nahi
dituenak jo beza
helbide honetara:
Plz. Amezketan, 12-8° F
Donostia 20010
Tfnoa: 455100-22

**IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO
ERITZIEN ARDURADUN
EGITEN.**

AURKIBIDEA

Komunikabideak eskolan :

KOMUNIKABIDEAK.....	2
IRRATIA ETA ESKOLA.....	6
IRRATIA ETA HEZKUNTZA.....	7
AHO-BIKO EZPATA.....	8
MAHAIN-INGURUA.....	
. Irungo "Belaskoenea" Eskola	11
. Ataungo Herri Eskola	13
. SATORRA Irratia	16
TEATROA LANTZEN.....	18
ORIOKO "ZARAGUETA" Ikastetxea.....	28
BORDA-ESKOLAK.....	30
HAUR BEREZIEN ESKOLATZEAZ.....	32
INGURUGIROARI BURUZKO INKESTA.....	34
HAUR LITERATURAREN TXOKOA.....	38
MEMO-ri GUTUNA.....	44
HAUR TXOKOA.....	45
OLERKI XORTA.....	46

ISILIK

S A R R E R A

1.980ean hil zen Marshall Mc Luhan "Komunikabide eta informazioaren ikerlaritako bat". Berak idatzi zuenez, "mass media"ren teknologiarik esker, gure planeta zahar bezain urdin den hau, mundu hau, alegia, herri koxkor batetan bilakatzen ari omen; erlijioen eta fikziozko zatiketa guztien gainera elkarren menpe dagoen giza-komunitate txiki batetan, hitz batez.

Hala eta guztiz ere, errealitatea erabat desberdina da. Bestela, ikusi besterik ez daukagu mundua deritzogun herrixka honetako haurren egoera, besteen artean.

Besteak beste eta oso hurrunera jo gabe, gogora ditzagun aurten bizi izan ditugun istiluak San Francisco eskola eta Intxisu ikastolaren artean. Haurrek jasan behar izan duten egoera gogorraz gainera, batzuren batzuz, bi komunitateon arteko enfrentamendu batetara eramaten saiatu direlarik.

Arazo guzti honen errudun bakarra Administrazioa da, baina, horrek ez du esan nahi PSO Eren jarrera frankista salatzeke utzi behar dugunik; etsairik sutsuenaren papera jokatu eta jokatzen bait du euskaldunon eta euskararen aurkako deklarazioak eginez; guganako gorrotoa sentitzen duenak besterik ez bait ditu esaten horrelako astakeriak.

Bestalde, aurten ere, "Ley del Vascuence" deritzoena onartu dute Nafarroan, hau ere euskaldunon eta euskararen kaltetan.

Nork ukatuko du frankismoaren garaira ez garenik atzeratzen ari?

Eta gu bienbitartean, isilik "demokrazia santu" honen izenean, zeren zerbait lortu baldin badu demokrazi honek zera da; guztion passotismoa; dena igual zaigu; burutik behera kaka egiten ari zaizkigu eta gu isilik.

Noiz altxatuko ote gara esanez: ASKI DA! Hemendik aurrera ez gara pasako!

Eta orduan agian aldizkari honi "OIHUKA" deituko diogu.

KOMUNIKABIDEAK

«Geroz eta axola gutxiagoko, geroz eta sakontasun gutxiagoko eta geroz eta lerdokeria gehiagoko ikusentzulegoa egin du telebistak.

Irudiak errealitatearen ordezkioak bilakatzeko dituzte, baina zuzen, ikusentzulego horrek, egia huts bezala hartzen bait du pantailan eta entzuten duena, nabiz eta errealitateetik urrun egon. Azken finean, errazagoa da, botoi desberdinak sakatzuz, norbere gustoko bizimodua aukeratzea, etxetik kanpoko giroari bizkarra emanez».

(F. Fellini)

Felliniren hitz hauek ez dute lerro hauek irakurtzen hasi berri denaren gogoia suntsitu nahi, irudiaren irakurketa kritikoaren beharra azpimarratzea bait da lan honen helburu nagusia.

Gaur egun, ikusentzunezkoaren munduak inguraturik gaudu. Kontua ez da soil soilik politikariek beren irudia zaintzeko eta itxuratze kontseilari bereziak dituztela jakitea edo gure artean, hauteskunde garaian, telebistak eta beste ikusentzunezko eraginaz ohartzea, gure gizartean irudiak lortutako eragin horren arrazoiak aztertzea baizik.

Duela hilabete batzuek inor ez zen harritu Nantesko Justizia Jauregian indarrez sartu zirenek, beste eskaerekin batera, eta ekintzari oihartzun handiagoa ematearren, kameraren presentzia eskatzen zutelako jakin zenean.

Gure artean OTAN-i buruzko erreferendumean edo ta O-23ko Tejeroren matxinadan kamerak jokatu zuten papera irudiaren eraginaren froga argia dugu.

40. hamarkadaren hasieratik, zinema, prentsa eta telebistak aldaketa bat ekarri dute informazioa eskuratzeko eran. Eliza, Eskola eta Familiak, ehen, jakintza, jokabide eta jokaeren transmisioan izandako eragina galtzen doan neurrian, irudia gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari da, informazioari homogeneotasun bat erakarriz.

Gizakiok gertatutakoaz informazioa transmititzeko gauza bihurtu ginenez geroztik, hasi ginen historia egiten. Kondairak, orduan, ahoz aho iragaten ziren. Gero, inprentaren asmaketa zela medio, Gutenberg-en aroa iritsi zen. Rushworth M. Kideer-ek zioenenez, «Inprentarena baino lehenagoko kultura batean, mezu gehienak oroimenean besterik finkatzen ez ziren bitarteko baten osagarrien arabera transmititzen ziren. Horregatik, normala den bezala, mezu horiek ahozko formula eta baliabide teknikoaren menpean gelditzen ziren, erredundagarri eta errepikakorrek bilakatzeko ziren eta askotan esaldi eginez betetzen zitzaizkigun. Inprentaren erabilpenarekin, berriz, mezua eskakizun berri eta erabat desberdinekin lotuta agertzen zaigu. Entzulegoak ez du toki zehatz batean eta une zehatz berean bildu behar».

Garai hartatik aurrera gertaerak liburu batean metatzen hasi ziren. Liburua kulturaren elementurik funtsezkoena bilakatu zen. Oroimenaren garrantzia desagertu joan zen, jakitea, gordetzen zuten tomo lodietan pilatuta bait zegoen. Orduz gero, esperientzia asko ezagutzen zituen atsoa ez zen jadanik jakintsua, ilustratuaren eskuetan gelditzen bait zen jakitea maila hori. Kultura dugu, orduan, legeak eta baita zientziaren eta erlijioaren sekretuak ere ezagutzen dituen bizkarra.

Gaur, berriz, ondorioak ezagutu ez arren, beste aldaketa bat gertatu dela esan dezakegu. Gutenberg-en arotik aro elektronikora igarotzeak aldaketa sakonak dakartza giza eta indibiduoaren jokaeretik, irudiari betebeharrak berri bat emanez, komunikazio mailan bitarteko nagusia bilakatu bait da hori.

Gaur egun mass-media hauek jasotzen ez duten berriak ez du inongo giza eraginik. Gure oroimena ikusi edo entzun ditugun gauzei osatzen ari da, erreferentzia nagusiak izanik. Egundako gizarte postindustrial eta teknologiko honek indibiduo-masa bihurtzen gaitu. Ikusten ditugun irudi guztiak (finkoak nahiz mugimenduan oinarritutakoak, iragarkiak nahiz filmak, dokumentalak nahiz telesailak) norabide bakar batetik dabilta, gainera. Transmisioa itzuliezinezkoa da. Gu hartzaile pasiboak gara, eta ez sortzaileak.

Honek, zalantzarik gabe, bere eragin zuzena du hezkuntza mailan, hurrek gelatik kanpo jasotzen duten informazioaz baliatzen ari garela alde batetik eta baita gela barruan ikusentzunezko baliabideak sartu ditugulako ere, bestetik.

Hezkuntza munduan murgiltzen garenok garbi izan behar dugu eskolaren berrikuntza ez zaigula soil-soilik edukien aldatetik etorriko, horiek finkatzen dituen metodologiatik abiatzen ez bagara behintzat.

Gure eskoletako hurrek ez dute gaur egun ikasgela informazio iturri nagusitzat. Egundakoz ezinezkoa zaigu gizarte-arloa testu-liburu edo mapa batean baliatuz bakarrik lantzea, hurrek informazio zabalagoa aurkitzen dute eta telebistan gai horiei buruz.

Duela egun gutxi (1986-11-12) O.F. Oterok hitzaldi batean adierazten zuenez, gure ikasleek, urtean, 1450 ordu pasatzen dituzte telebista aurrean. Ikasgelan, berriz, 900 besterik ez. Egundako geroxeago, Alfonso Méndiz jaunak adie-

razten zuenez, haurren %ko 93.ak egunero 3 ordu baino gehiago pasatzen ditu telebista aurrean.

Italian egindako inkesta batetan ikus zitekeenez, italiarren %ko 97.k gutxienez hiru ordu igarotzen ditu egunero telebista aurrean. 6-10 urte bitarteko enrdiak, berriz, lau ordu, %ko 18.ak sei ordu pasatzen dituzten bitartean. Frantzian egindakoaren emaitzak ez ziren oso desberdinak, bertako haurrek, batz bestea, eta ikasturte garaian, astean 15 ordu pasatzen bait dituzte pantaila txikiaren aurrean, eta 20 ordu oporretan.

Hala ere, baliabide hauei muzin egiten dien eskola, tresna hauek erakar dezaketena bazterteaz gain, eskolak bere inguruaren errealitatearekin izan behar duen lotura hausten ari da.

Baliabide hauek egokiak suertatzen dira ikasleak motibatze-ko, heuren interesak erraz zuzpertzatu bait ditzakegu.

Beste alde batetik, ikasleek zenbait kontzepturen azalpena eta arrazonamendua jarraitzeko dituzten zailtasunak gutxitu ahal izateko, bitarteko guztiak ditugu egoki eta interesgarriak, ondo erabiliz gero. Ikusentzuek erraz ditzakete, irudi eta soinuaren loturaren bidez, kontzeptu horien, ulermena eta sakotasuna.

Baina teknologia soilak ez ditu inoiz gure arazo pedagogikoak konponduko, irakaslearen jarrera eta jokabidea berplantatzen ez den bitartean.

Laswel-ek burututako paradigmaren arabera, eremu zabal honetan ditugun elementu guztiak hartu behar ditugu kontutan.

	MEZUA	
IGORLEA		HARTZAILEA
	MEDIA	

Igortzen duen iturri batetik ateratzen den mezua hartzaileak jaso egiten du, baina komunika horretan prozesu osoa baldintzatzen duen tresna bat dago: «Media» edo bitartekoa.

Gure kasuan, «media» hori ikusentzuek gailua dugu. Zenbait eta hobe, hainbat eta egokiagoa eta emankorragoa izango da azalpenaren transmisioa.

Baina baliabide hauek (telebista), erretroproiektagailua, irratia, magnetofonoa, bideoa, ordenagailua etab.) gure gelara iristen diren unetik, irakasle eta ikaslearen arteko erlazioa aldatu egiten. Hezkuntza munduan ikusentzuek baliabide hauek sartzeak ez ditu ikaslearen aldagaiak bakarrik baldintzatzen, baizik eta horietako zenbaiten aldaketa eskatu. Egia bada sistemak baliabide hauen erabilpena baldintzatzen duela, kontutan hartu behar dugu beti honek ere sistema bera egituratzen duela.

Eta aldaketa nagusia irakaslearen paperari dagokio. Irakaslea ez da dagoeneko mezua igortzen duen iturri bakarra, lanaren zuzpertzatzailea baizik.

Baliabidea («media») elementu lagungarri edo osagarri bat izan daiteke, baina ez du inoiz errealitatea bera ordezkatu behar. Hezkuntzaren bidez, eskola (haurra) errealitatearekin uztartu nahi badugu, ikusentzuek gailuak ez du gerturatze.

horiekiko oztopo bat izan behar, gelan gelditzeko aitzakia berri bat erakarrit.

Baliabide hauen helburua, bitarteko eraginkor bat lortzea bada, teknika hauen erabilpen tekniko eta pedagogikoaren arazo, abantaila eta akatsak aztertu behar ditugu uneoro.

Patxada ederrean eta pasiboki pantaila aurrean eseritzen bagara, ikusentzuek gailuak gure lana beteko duelakoan gureak egin du. Eta horrek berdina balio du Greziari buruzko bideo batentzat nola Txanogorritxuren ipuina kontatzen digun audio-kasete batentzat.

Pedagogi askatzaile eta emankor bat lortu nahi duen irakasleak ez ditu bere helburuak ukatuko bitarteko hauetaz baliatzeagatik, dinamika orokor batean osatuko bait ditu ikusentzuek gailuen erakarpene guztiak.

Arazoa ez datza ikusentzuek baliabideetan, gizartearen botere-egituren transmisore bezala sortu den eskola eta hezkuntzaren egitura baizik.

Egitura horretan asko dira baliabide horien erabilpena baldintzatzen duten faktoreak:

- Azpiegitura eta material horren sorkuntza, egitura eta banaketa, gehienetan, kanpoan erabakitzen da, politikarien bulego edota egileen lantokian.



LANTZEN



Pantailetakako irudiak etengabe iristen dira gure begietara. Iragarki eta filme gehienek zabaltzen dituzten gizon eta emakumearen ereduak, programa horietan igertzen dugun indarkeriaren erabilpena, eta irudiaren bidez transmititzen zaizkigun mezu moral eta ideologikoei, irakurketa kritiko horren azterketara eramane beharko gintuzkete.

Jakin badakigu irudia ez dela neutroa: plano eratzean edota plano horren barruko objektu eta pertsonen neurri eta posizioa aukeratzean, mezuaren menpean egongo dira beti. Plano-sekuentzia erabiltzea edota muntaketa arin bat eskaintzea, ezarritako helburuen baitan egongo da beti. Kamerak eskaintzen digun ikuspegia edo planoen arteko loturen funtzioa aztertuko bagenu, ondorio berera iritsiko ginatke.

Haurra aurkitzen den adimen, afektibo-sozial eta psikomugimenezko garapenaren bilakaerazko une zehatzari egokitzen saiatzen gara beti. Heldutasun-ikastea bikote horren arteko oreka mantendu nahian programatuak izan dira gai guztiak, irakurketa-idazketa prozesua barne.

Baina gure ikasleei idatzi a irakurtzen edo bakoitzak sentitzen duena edo kontatu nahi duena adierazten erakusten badiegu soil-soilik, gure hezkuntz prozesua geldierazten ari gara. Noiz konturatuko gara irudiak bere gramatika baduela eta komunikabide hauen aurrean kritiko eta sortzaile ager gaitzen prestakuntza eta programaketa berezi bat beharrezkoa dugula?

Komunikabide hauek ikasten eta erakusten ari garen gaien elementu osagarri eta motibatzaile gerta daitezke.

Bestalde, haurraren sormena bultzatzeaz gain, irudiaren irakurketari ekiteko oinarri izan daiteke.

Baina honek denak ez luke zentzu handirik izango, erakurketa hau prozesu edo hobekuntza orokor baten barruan planteatuko ez bagenu.

Gainerakoa, modari jarraitzea edo ikasleekin ondo gelditu nahi izatea besterik ez da izango.

KOMUNIKABIDE HAUEK ERABILTZEN IKASTEAREN HEZKUNTZA ERREALITATEAREKIN UZTARTZEN IKASTEAREN ERABILTZEAREN IZANGO DA.

X. Portugal

- Eskola bakoitzean, baliabideon erabilpenari dagokionez, Zuzendari, klaustro eta gurasoen eritzia aldakorra, desberdina edota kontrajarria izan daiteke.

- Irakaslearen prestakuntza tekniko eta pedagogikoa.

- Material horren egokitasuna eta kalitate teknikoa nahiz pedagogikoa, etab.

Hala ere, ez da nahikoa irakasleok ikusentzunez gailuek eskaintzen duten informazioaz eta baliabide guztietaz baliatu ahal izatea, material lagungarri eta osagarri honen oinarria den irudiaren irakurketa kritikoari heltzen ez badiogu.

«Jadanik pentsatzen hasi gara -Mac Luhan-en hitzak dirakomunikabide-forma berriak ez ditugula ametsezko mundu bat sortzeko egokiak diren asmakizun hutsak, adierazpen-ahalbide berri eta esklusiboak dituzten lengoia berri batzu baizik».

Baina irudien eragin kaltegarria kritikatzeko ez da nahikoa guztion pentsamoldean irudiak dituen ondorioetatik jabetzeko, edota, era berea, dituen abantailez baliatzeko.

ISILIK

Plaza Amezketza, 12 - 8.a F
DONOSTIA

HARPIDETZA

Izen deiturak

Helbidea

Herria Tif.

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez

Kontu Korrontearen zenbakia

Sukurtsala (Ordezkaritza)

Eguna

(Sinadura)

Irratia eta eskola

Irratiak ikaslea entzule duen arlo hau da obserbazio edota, azterketa-lan gutxien izan duena. Oso pedagogo, psikologo, hizkuntzalari edota, komunikalari gutxik aztertu bait dute irratia haur/ikaslearen duen eragina. Halere, bi ezaugarri nabarmen ditugu eremu hezgarrian; soinuaren lilura edo magia eta, hizkuntzaren garrantzia.

Askotan esan ohi da irratia entzulea «estimulatu» ohi duela, eta hori, ongi dakite pedagogoen, estimulorik gabe ez dagoela ikasketarik. Interesatzen zaiguna besterik ez dugu asimilatzen. Eta haurren kasuan aldiz, guzti horri soinuaren, musikaren baliua elkartzen zaio. Beraz, musikaz eta efektu espezialetan inguratzen den ahotsak imaginazioa eta sormena lantzen duela, argi eta garbi dakusagu.

Eta sonidoaren ikasketaren alorrean, hezketa musikalaren teoria guztiarekin topatuko gara. Jakin badakigu, musikak irratian eta irakaslearen duen eragina eta inportantzia. Beraz, sonidoaren eta musikaren artean, ahotsa menperatzen jakitearen garrantzia dago. Zoritxarrez, hori oso ongi dakigu ahotsa lan-tresnatzat duginok (irakasleok, adib.,) egunero egiaztatzen bait dugu. Ahotsaren erabilera

(ona ala txarra) komunikagailu bezala, lehenengo mailako faktore hezgarria dugularik.

Hizkuntzaren inportantziari gagozkionez, hots, zeinu kodifikatuen multzo eta identitate edukier tresna bezala harturik, irratia eredu paradigmaticoa bat dugu. Entzuten jakitearen beharra, ahozko mezua ulertu, bere asimilazioa egituratzeko kapazitatea eta ondoren, espresabide pertsonalean berbilakatze-ko kemena, dira irratia entzulegoari dagozkionak.

Irratia, beraz, «reto» bat da irakasleontzat.

Irratia, azkarra, bapatekoa eta superfiziala da. Bizitza bera bezalakoa. Irratia, politika eta sekua da; ekonomia eta erlijioa da; kultura eta dibertsioa; nor-tasun indibidualaren eta kolektiboaren berrindar-keta eta, inozotzen, zozotzen duen tresna da era berean.

Heziketa irekiak, kritikoak eta dialogatzaile batek besterik ez du prestatuko ikaslea, mezua asimilatzen jakitera; eta horretarako, noski, GURASOEN ETA IRAKASLEEN IRRATIA ENTZUTEN JAKIN ETA ENTZUN ERE EGIN BEHARKO DUTE.



IRRATIA

ETA

HEZKUNTZA

Irratian lan egiteko irratiaz *zoraturik* egon behar da, eta hezkuntza arloan lan egiteko zer esanik ez. Badira zenbait lanbide, dedikazio edo bizibide erdi-purdizkako ibiltze hori onartzen ez dutenak, alegia. Guztia eskaintzen duzu. Horretxegatik, agian, konbentzitu nahi ditugu hezketako profesionalak komunikabideek hezketan duten garrantziaz. Ahaztu gabetanik noski, guzti honek daraman ironia. Baina komunikatzaile garenez, badira gainera, beste zenbait ohar arlo honetan interesatzen zaizkigunak. Begi bistakoa da gertakari soziologikoen ondorioez, kezkaturik dagoen edozein pertsona ohartuko zela azken urteotan ireki diren emisora berriez. Eta pertsona hori bere lanbidez «irakaslea», hots, irakasten duena bada, berehala konturatuko da fenomeno horrek berari dagokiola zuzen-zuzenean, hau da, bere ikasleen heziketan eragiten duten fenomenoak direla, alegia.

Denbora luzea da jadanik, galdu zuela eskolak hezkuntzaren monopolioa. Giza-erlazioen kontsiderazio ekonomikoak, beronek daraman garapen teknologikoak eta hauek sortarazten dituzten ondorio soziologikoez, ikaslea eta bere hezketaren arduraduna, hezitzailea edo irakaslea, alegia, etengabeko eraketa baten gailurrean ipintzen ditu, non parekatzen ez badira, eskema ideologikoen ugalketaren desio gardenak menpera bait ditzake.

Hala eta guztiz ere, kontrajarririko topiko bat izanez darrai eskolaren eta komunikabideen arteko zatiketak, «mass median» isladaturiko bizitza erreala- ren eta ezagupideen transmisio eta ikasketa tekniken artean. NOLA eta ZERGATIEN legezko kontsiderazio eta etika eztabaidagarrietan sartu gabe, bistakoa da komunikabideok egunerokotasunaren bapatekotasunaz hornitzen garelako, jaso itxuraldatu eta berriro proiektatuz. Eta gainera, errealitatea «sortu» egiten dugu, eritzia moldatu, modak ezartzen, ditugu, kontzientziak esnarazten, hitz bitan, «mezua» sortzen dugu. Eta haurra hortxe dago, mezu hori jasotzen inolako neurririk hartu gabe. Beraz, beharrezkoa da komunikabideen pedagogia bat.

Lehenengo azterketa funtzional bat egiterakoan hiru maila ikusten ditugu irratia-ikaslearen artean:

- Ikaslea entzule gisa; irrati-mezu orokorraren hartzaile bezala.
- Ikaslea programa espezializatuen destinatario bezala, eta.
- Ikasleak irratia lantzen duenean; IRRATIA eskola tresna bezala.

Guk azken puntu hau gai-tzat harturik mahai-inguru bat antolatu genuen; horretarako Irratigintza lantzen duten zenbait ikastetxe gonbidatuz, Joxerra Gartzia moderatzaile eta bere esperientziaren inguruan bildurik.

Hemen doakizue bakoitzaren berri.

Komunikabideak eskolan:

Aho-biko ezpata

Badirudi halako adostasun orokor bat dagoela aspaldian gai honetan: Komunikabideak eskolan? Bai noski; nola ez?

Hasi komunikazioen teorikoengandik eta gurasorik despistatuenganaino doa adostasun hori, irakasleak dituelarik, jeneralean, defendatzaile sutsuenak.

Baina egina dut jadanik artikuluxka honetako lehen sinplifikazioa, eta esan dezadan, aurrera baino lehen, asko eta asko izango direla, artikuluan zehar ezinbestean egingo ditudanak. Lehenari dagokionez, esan, «Komunikabide» hitzaz izendatuko ditudala ez bakarrik prentsa idatzia, irratia eta telebista (mass media direlakoak), baizik eta baita edukien transmisioa hain errotik alda lezaketen elektrotresna zenbait ere; hala nola, adibidez, filminak, bideoa, zinema bera eta beste.

Hori esanik, gatozen berriro ere gaiaren harira. Komunikabideak eskolan sartzearen aldeko adostasun hori, euskal eskola publikoaren aldekoa bezain zehazkabe eta azalekoa iruditzen bait zait.

Izan ere, zergatik, zertarako eta nola eskolaratu behar dira komunikabideak?

Galdera lodiegiak, artikulua labur honetan bete-betean erantzun ahal izateko. Baina bada puntu pare bat argitu beharreko, eta horretara mugatuko naiz hurrengo lerrotik aurrera.

Hain gertutik ezagutzen ez ditudan alorrek alborra utzirik, B, D ereductako euskararen didaktika eta medodologiei lotuko natzaie, eta esparru mugatu honen barruan are OHO-ko azken zikloko eta BBB-ko lehen ikasturteari dagozkienetan.

Baina berriro ditzagun hiru galdera nagusiak: zergatik, zertarako eta nola komunikabideak aipatu mailetakoko euskararen irakaskuntzan?

Zergatik

Galdera honi erantzuterakoan aurkitzen dugu adostasunik zabalena.

Itzal handiko firma batez hastearren, gogora dezagun MC LUHAN aipatu eta ez hain aintzat hartutakoaren esanetako bat: «Gaur egun, eskolatik kanpora gertatzen da heziketa prozesoren puskarik handiena. Prentsa, aldizkari, filme, telebista, eta irratian jasotako informazioa, askozaz handiago eta indartsuagoa da, eskolan eta textu-liburuan jasotzen dena baino» (MC Luhan, *El aula sin muros*). Izen bereko liburuan. Península. 235 orr.

Komunikabideek, bestalde, badute halako indar berezi eta ia «sakratu» bat, dakarten edozein eduki erakargarriago bihurtzen dutena. Jean Cazeneuve-k areago diosku: «Gaur egungo komunikabideek, garai batetan erritoez eta mitoez betetzen zuten funtzio berbera betetzen dute» (J. CAZENEUVE. *Le télévision et le condition humaine*. Ing. COMMUNICATION AND HUMAN CONDITION).

Euskara bera, beste edozein eduki bezala, prestigidun bihur lezaketek beraz, komunikabideek. Bada, noski, horren premia gaurko gure eskoletan.

Zertarako

Erabakia harturik dago, beraz. Komunikabideak eskolara sartu behar dira. Baina zertarako?

Horretan adituak direnek diotenez (Ikus, ANALISI UAB-ko aldizkaria, 3. zkia., 8leko notak, 57-71 orr.; Salvador ALSINS, Lluís BASSETS eta Román GIBERN. «El vídeo com a instrument per una educació crítica»), komunikabideak eskolaratzeko modu eta maila asko dago. Azken finean, nik uste, ondorengo hiru mailetara etorriko lirateke:

1. Komunikabideak, ikasgai bihurturik: egunkari, irrati eta telebista gelan aztertzea.

2. Komunikabideak, eskola-tresna lagungarri gisa erabiltzea litzateke bigarren maila. Eskolak lehen bezala segituko luke, testu liburuaren eta irakaslearen autoritatearen jiran. Tarteka, ikasle gogaituen arreta zuzpertzeko, halako emanaldi bereziak eskainiko lirateke, hornidura eta apaingarri gisa: filmak, bideoak eta abar...

3. Eskolako edukiak, eta ikas-prozesua bera, komunikabidegintzaren inguruan antolatzea. Testu liburuak albora utzita, etengabeko ihardunak planteiatzen dituen arazoei aurre ematea litzateke bide hau.

Garbi dago gure eskoletan 2. mailako bidea bakarrik ezagutzen dela.

Euskararen irakaskuntza gramatika-eduki zabalegi batzuren jiran antolatzen da, testu liburua eta irakaslearen jakinduria oinarri dutela. Eta hori, esan dezadan ozenki, OFIZIALAK DIREN NORABIDEEN AURKA jokatzea da.

Lehen mailako ekintzak, komunikabideak aztertzearena, espreski agindurik dakar Euskal Gobernuaren liburu urdinak, eman beharreko edukiak zazpi (7) alorretan banatzen bait ditu, horietako bat prentsa idatzia, irrati eta telebista aztertzea delarik. Beste 6ak, honako hauek dira: Mintzamina, idazmina, hiztegia, literatura eta testu azterketak, lan teknikak eta eredu linguistikoak.

Zazpi alor beraz, nahiz eta praktikan eredu linguistikoei bakarrik jaramon egiten zaien, gainontzeko guztiak ahaztuz. Ez da hori legeak agintzen duena. Are gutxiago da hori bidea, euskararen irakaskuntza emankor eta erakargarri egiteko.

BBBrako orientabideetan, berriz, eskola orduen % 70 hizkuntz trebetasunak lantzeari eskaintzeko agindua dator, eta % 30 bakarrik edukiei. Bestela esanda, 5 orduetatik 3,5 trebetasunei, eta 1,5 edukiei.

Non gordetzen da proportzio hori? Non eskaintzen zaio gelan *hitzegiteari, eztabaidatzeari, deklaratzeari*, hizkuntza erregistro desberdinak lantzeari, hizkuntzarekin jolasteari hainbeste leku?

Nola

Jarri ditugun hiru mailetan hirugarrena bakarrik da osoa, koherentea.

Aipatu mailetako euskararen irakaskuntza, euskarazko klasea, desastre bat da, edonork aitortuko duenez. Baina desastre horretan eroso gaude, eta segi berarekin.

Zer egin litekeen? Bide berriak tentatu. Hizkuntz-orduko ikasgela, erredakzio bihurtu, hizketari, libre idazteari beldurra uxatu, testu liburu zaharkitu eta aspergarriak baztertu.

Ikasgela erredakzio bihurtzeko, ez da gauza gehiegirik behar; lanegiteko gogoia, eta antolamendu piska bat.



Ikasturteko euskararen programa hauxe izango da: aldizkari bat ateratzea, eta irratsaio zenbait eskaintzea. (Emisora baldin badago, hobe, baina emisorarik ezaren aitzakitan geratu gabe). Nonbait bideoa lantzeko modua baldin badago, bideoa ere bai, noski.

Ez da hau horretarako behar den gela-antolamendua zehatz-mehatz agertzeko lekua. Bakar-bakarrik esan, Komunikabidegintzaren lehen urratsa, komunikabideen azterketa izan litekela, eta antolamenduaren oinarria, berriz, taldekako banaketa.

Sistema honek lana eskatzen du, esan bezala, eta lana latza, gainera.

Zein jenero landuko diren, jenero bakoitza zenbaiteraino eta noiz, irakaslearen esku dago, noski, gelaren beharrezko arabera.

Ihardunak berak ekarriko ditu edukiak. Subjuntiborik behar baldin bada, etorriko da, noski, eta irakasleak jakin beharko du bere garaian eta behar den kasurako azaltzen, ikasleen adierazi nahiari adierazpide egokiak eskainiz.

Eskola sistema honek ez du alde zuzenik aurretikako programazio txukunik onartzen. Arrakasta ere ez

du segurtaturik, eta desmadrearen arriskua beti ere izango du aldean.

Baina arloko beharrezko guztietara heltzeko gaita da: mintzamena, idazmena, hiztegia, literaturtasuna, lan teknikak eta abarrak derrigorrez landu behar bait dira, komunikabidegintzan. Eta baita eredu linguistikoak ere, baina *beharrezko diren neurrian soilik*. Hau da: ereduak adierazpen-beharrezkoaren menpe, eta ez alderantziz.

Eta bukatzeko, beste gauza bat: gaur egun nagusi den sistemak segurtaturik eta frogaturik du porrota; ikasleen euskararekiko axolagabetasuna, nazka eta higuina besterik ez du sortzen, eta beren testuinguritik aparte «ikasitako» NINTZAIEKE, ZINTZAIZKIDAKETE eta gisakoak behar-beharrezko diren adierazpide arruntago, testuinguruan txertatuagoen tokia hartzen dute ikasleen garun nekatuetan, ikasleen eta euskara beraren kaltean.

Hemen zabarkari eta presaka seinalaturiko bideak, aldiz, porrota ekar lezake. Baina, ibili gabeko bidea da, eta ez du behintzat porrot hori segurtaturik.

Joxerra GARTZIA



Irratia Lantzen

IRUN-go «Belaskoenea» Eskolako esperientzia

Iaz hasi ginen, eta megafonia sistema geneukanez, pentsatu genuen aprobetxatu beharko genukeela nolabait irrati-sistema berpizteko. Eta aurtan, ekin diogu Irratigintzari.

Lehenengo Ziklokoek esan zuten oso zaila iruditzen zitzaizela aurrez inolako esperientziarik ez zegoela eta, aurtengoz ez dutela pentsatu parte hartzerik, nahiago dutela aurrera begira zer-nola doan ikusita gero.

Erdiko Ziklokoek aldiz, baietza berehala eman zuten, taldeka elkartuz, eta prestatu ere horrela egingo zutela.

Bigarren etapakoek ere parte hartuko zutela agindu zuten baina, atal edo arloka prestatuko zituztela irratsaioak, hala nola; Zientzi arloan batzu, Gizarte arloan batzu e.a. Baita ere aipatu behar da, zenbait programa elkaturik egiten direla, adib. Gizarte eta Hizkuntza; Gizarte, Hizkuntza eta Zientziak eta Euskara, hots, guztiak batera harturik landu gai baten inguruan. Hau 8. mailan egin genuen ERREKA gaitzat hartu eta hortik programa bat atera genuen askoz errazago zelako. Gero, Euskara Departamenduan ere bagenituen beste zenbait ideia baina egiaztatzerakoan, hots, praktikan ezartzerakoan askoz zailago egiten zitzaigun, jendeak eragozpen handiekin topo egiten zuelako.

Hasieran, lehenik atera ziren saioak euskarazkoak izan ziren. Esan behar da Eskola hau A erduan dagoela, beraz, euskara maila oso murrizta da.

Bigarren etapakoek saio txiki batzu prestatu genituen agurra emanaz (Egun on,...) eguraldiaren berri emanaz, txiste bat kontatuz, asmakizunak, e.a.; guztia hiruzpalau minututakoa, musikaz lagundurik.

Eta esperientzia oso ongi zihoan, jendea oso pozik zegoen; lehenengo astea oso ongi, bigarrrena hobeto baina, hirugarrenean jadanik, aspertzen hasi ziren, euskaraz entzutea eta ulertzea asko kostatzen zaie, zeren, goizeko 9etan sartzen dira gelan eta isildu arte guttienez 10 minutu pasatzen dira eta gero entzun eta ulertzea nahiko zailtasunez egin arren, gustora egoten ziren gauza berria zelako, baina zenbait egun pasa ondoren interesa gero eta guttiago agertzen zuten; halaz ere gu aurrera jarraitu ginen.

Bigarren etapakoek aldiz nahiko ongi jarraitzen ziren.

Arazoa ttikiekin genuen, Eta orduan, 5. kurtsokoak 3. goekin batera lanak prestatzen hasi ginen.

IRUNgo «BELASKOENEA» Eskolako esperientzia



Hori lehenengo hiruhilabetean egin genuen eta bigarrenaren hasieran, baina otsailaren hasieran jendea aspertzen hasi zela ohartu ginen eta horretaz jabeturik, atsedenaldira bat ematea pentsatu genuen, berriro Apirilean hasteko asmoz.

Esan behar dugu, egunero goizeko 9etatik 9'15ak arte egiten genuela saiotxo hau.

Tresneria aldetik mikrofono bat besterik ez dugu gela guztietara irekia beratu. Orduan, zuzenean egitera beharturik gaude; gelara joan mikrofonoa hartu musika jarri e.a., aurretik deus grabatu gabe. Hortaz, aparte, nahiko istilu sortzen genuen hasieran ez genekielako nola funtzionatzen zuten; askotan gela ez zen ongi entzuten, musika ez zela sartzen, e.a., e.a., luze bat. Eta horrela, jendea desanimatuz joan da, egia da hori.

Ez genuen egunero han egongo zen tekniko bat, guri esateko, «hau horrela egin behar duzu». Dena gure borondate onaren arabera zen. Adib.; kurtso batetakoak ikasten zuten (eta ongi ikasi ere, gainera), eta beste kurtso batetakoak agertzen zirenean berriro hasi behar izaten genuen.

Bueno bada, xehetasun guzti horiek hasieratik eta poliki-poliki egin beharrekoak direla uste dugu.

ATAUN-go Herri Eskolako Irratia

ISILIK: *Zein da zuen esperientzia? Nolaz hasi zineten?*

IRAKASLEAK: Lehenik esan behar dugu, orain arte Irratiaren esperientzia aurrera eramantzen ikastetxeetan euskara lantzeko edota, euskarari lotua izan dela. Gure herrian aldiz, ez dugu hizkuntz problemarik eta edozein azterketa egiterakoan, kontutan hartzekoa litzateke egoera berezi hau.

Beraz, hizkuntza baztertu gabe, beste arlo batzuetan lantzea jo dugu. Gure asmoa herri guztiari zuzentzea bait da; hots, herri guztian entzun ahal izatea, zenbait gurasok eta haurrek ere beren burua entzuteak bere abantailak dituelako. Nahiz eta gaur egun helburu hau ezinezkoa izan teknika arazoengatik; eta orain egiten dugun lan bakarra eskola barnera zuzendurik egon.

ISILIK: *Zer egiten duzue une honetan, eta zer asmo duzue aurrerantz zuzentzen zuten helburu hori bete ahal izateko?*

IRAKASLEAK: Gure asmoa, Irratia, Hasiera, Erdiko eta Goi-zikloetara zabaltzea da.

Ikus daitekeenez, ziklo bakoitzak bere helburu, ordutegi, antolaketa eta abar..., ezberdinak ditu. Momentuz Goi-zikloko eta Erdi-ziklokoa ezberdina da; hots, Goi-zikloko antolaketa tailer modura antolatu dugu, eta Erdi-ziklokoa aldiz, gelak (hemen kontutan hartu beharreko datua zera da; gelak 24 edo 25 hurrez osaturik daudela; honek, bere abantail onak ditu, edozein eskola handitan egin ez daitezkeenak).

ISILIK: *Hasteko, esplikatuko al diguzue Goi-zikloko antolaketa?*

IRAKASLEAK: Beno, guk Goi-zikloan tailer bat daukagu, «Eskulanak» deritzoguna eta tailer honen barnean sartzen dugu IRRATIA. Orduan IRRATIA aztertzen duen taldea da berez beste eskulanak hartzen duena baino handiagoa. Beste edozein eskulanetako taldeak laupabost lagunez osaturik badago, IRRATIAz arduratzen direnak aldiz, zortzi edo hamar lagunez osatzen da, lan handiagoa delako eta lan hori errazago egin ahal izateko.

Antolaketa berriz, ostiral arratsaldetan egiten dugu; lehenik ordu t'erdiko programaketa bat prestatzen dugu idatziz eta hurrengo ostiralean grabatu egiten dugu. Eta momentuz, emititzetik ez dagoenez, grabaturik geratzen da.

ISILIK: *Zer-nolako programak egiten dituzue?*

IRAKASLEAK: Batzuetan monografikoak izaten dira, gai bakarrekoak alegia, adib.; egun konkretu bati zuzenduak, Udaberriari buruzkoa, edota, beste edozein gai zuzenduak; beste programa batzuetan aldiz, atal desberdinak hartuz egiten direnak; atal horietatik gai batzuetan ateratzen ditugu, gero ahal den neurrian behintzat programa guztia gai horri loturik doalarik, adib.; elkarrizketak, musika, beste erreportaiaren bat, inkestak, liburutegitik ateratzen diren datuak e.a. Baina gai guztiarekin horrela jokatzetik ez denez, eta denetan ez denez bada, beste gauza batzuetan ere sartzen ditugu tarteka.

ISILIK: *Zer arlo dira bereziki horrela izaten direnak?*

IRAKASLEAK: Elkarrizketa, programa oro sartzen dena, gero musika ere, atal desberdinak lortzeko behar-beharrezkoa izaten da eta, azkenik musika, musika gai bezala sartzen dena; eta honekin batera beste zenbait arlo adib.; «Ataun ezagutzen», (jendeak Ataun ezagun dezan), «Hiztegi txokoa»; liburuen komentarioak, olerkiak. Gero aurrera begira, buzoia bat edo, eritziak eta iradokizunak jasotzeko asmoak ditugu, eta honekin batera telefonoa ere konektatu dugu eta kanpora begira batipat, oso interesgarria izan daitekeelako, agian gurasoren batek eritziarik eman nahiko balu edota, egun batean ere egin daiteke telefonoz ematen diren eritziak.

ISILIK: *Zergatik ez duzue emititzen?*

IRAKASLEAK: Guztiok dakizuen bezala Ataungo berezitasun nagusia zera da, dena mendiz inguraturiko haran bat dela eta emisora berezia eskatzen du horrek, bertan emititu ahal izateko. Eta tresneria prestatu eduki ondoren, arazo bereziak izan ditugu emisora hori muntatu ahal izateko.

ISILIK: *Eta udalari planteiatuz gero?*

IRAKASLEAK: Momentuz ez da ikusten Udalaren aldetik horrelako gogo handirik arazo hau erabakitzeke. Orduan bada, geure kasa muntatu behar izan dugu eta tresneria horrek eskatzen

MAHAIN-INGURUA

duen teknika eta, koadrilan mogitzen garenan artean eraman dugu aurrera, alde horretatik beraz, ez dugu inolako laguntzarik jaso.

ISILIK: *Koordinatzen al zarete zeuon artean?*

IRAKASLEAK: Oso beharrezkoa eta ezinbestekotzat jotzen dugu koordinazio lana; Goi-zikloan eta erdi-zikloan egiten diren lanak ez dira nahastu behar.

Beraz, eta etsenplu gisa, aurtengo ikasturteko antolaketaren plana adieraziko dizuegu. Kanpo antolaketa honek hasita egon behar zuen, baina lehen aipaturiko arazoengatik ez dugu martxan ipintzerik izan.

Eta erdi-zikloko antolaketa aldiz, honela dago eratua, globalki harturiko egitura bat egina dago eta hori errepikatzea izango litzateke.

a) *Elkarrizketa*; bai goi-zikloan eta baita erdi-zikloan ere Eskulanak deituriko tailerretan funtzionatzen dute, orduan gurasoek parte hartzen dute tailer horietan; orduan aurtengo geneukan asmoa zera zen, tailerretako guraso horiek txandan-txandan elkarrizketatzea.

Beste puntua zera zen: *Kirola*, orokorki harturik; Herri Kirolak, Berriak, Musika, Lehiaketa jokoak, eta Hizkuntzari lotuak bertsoak, olerkia, esaera zaharrak e.a., tartekatuz.

Astean behin izango litzateke emisioa hots, behin 3.maila, hurrengo astean 4. mailakoak, gero 5.ak e.a.

Saio bakoitzaren iraupena 30/45 minutu bitartekoa izango litzateke.

Ordu aldetik ezatabaidatu genuen esta gurasoak eta beste jende heldua ere kontutan eduki behar genuenez, arratsaldeko 6,15etatik aurrera jotzen genuen ordurik egokien bezala.

ISILIK: *Emisio horiek nola egiten dituzue, gela batetik emititu, beste gela guztietan entzun ahal izateko ala nola?*

IRAKASLEAK: Beno, hori ez. Hasierako asmoa grabatzea da behintzat eta gero, kurtso bukarrerako edo, zuzenean egiten denarekin batera emititzea. Eta ez da gela barnerako izango, kalera begira baizik.

ISILIK: *Emisio horretan, 1.º eta 2. etapakoek batera parte hartzen al dute?*

IRAKASLEAK: Erdi-ziklokoek asteazkenetan eta arratsaldeko 6,15etan dute beraien ordua eta goi-ziklokoek aldiz, ostiraletan. Oraindik gure zalantzak ditugu eguerditan ez ote den garairik egokiena horretarako, baina bestalde etxe batean beste edozein irrati entzuten ari badira, ez dugu uste Ataungo Herri Eskolako irrati jarriko dutenik eta hori kontutan edukirik, arratsaldeko 6-6,30ak bitarteko tarte hori hautatu dugu.


Eta beste arazoa zera da; eguerditan ehunen (100) bat hurrek bazkaltzen dutela hango jangelan eta oso zaila da kontrolatzea, eta arazo guzti hauetaz pentsatuz, arratsaldeko ordu hori aukeratu dugu.

ISILIK: *Programa grabatzen denetik eta emititzen den arte, ez da denbora luzea pasatzen, hau da, gaiak ez dira zaharkiturik geratzen?*

IRAKASLEAK: Beno, hor gaiak grabatzeko garaian, oso aktualak ez direnak edo beste moeta-tako zerbait hautatzen ahalegintzen gara. Adib., «fotografia»ko bat, edo ta, «Aralar» hartzen baduzu bada, beti berdintsuak izando dira, baina jakina, «Udaberriari» buruzko edota, «San Valentin eguneko», maitasunezkoa udan emititzea bada..., ez dakit; honekin ez dut esan nahi botatzerik ez dagoenik, baina... (Adibide garbi bat badaukagu hemen, ETB-k Urteamaierako programa Martxoan emititu zigutenekoa...)

Dena den, urteko programazioa egiten ihardun genuenean, (hiruhilabeteka egiten dugu), adib., San Valentin Eguna eta ostirala zen eta orduan bada, pentsatu genuen «Maitasunari» eskainitako programa berezia egingo dugu egun honetan eta egun horretan bertan ateratzea beraz, oso interesgarria zen.

Beste batzu aldiz, Aralarri buruzkoak eta, bada hor daude edozein egunetarako.



IRRATIA

LANTZEN



ISILIK: *Esan duzue tailerretan prestatzen dituzue-
la; nola funtzionatzen dute tailerrak?*

IRAKASLEAK: Beno, astean egun bat dauka-
gu hartuta, hots, ostirala eta arratsalde guz-
tia horretarako; 2,30etatik 4etara, (ordu
t'erdikoa).

Tailer desberdinak daude; marketeria, ispilu-
gintza, puntua, makrame... horrela 12 edo 13
tailer osatu arte. Eta horietako bat IRRATIA
da.

Irratian 8 edo 10 ikasletako talde bat dago eta,
horiek aritzen dira ostiraletako ordu t'erdian,
hurrengo programa prestatzen.

Behin prestatu ondoren, aurkezleari eman be-
har diote, (ez da ahaztu behar ikasle bakoitzak
arloan desberdina landu behar duela), honek lan
guztiak bildu eta, lotu egiten du azken finean,
honen esku geratzen delarik, artikulu bakoitza-
ren kokapena, eta egin behar zaizkion sarrerak
egitea, alegia.

Beraz, honek lan hori egin eta, guri ematen
digu; guk programa guztiko fotokopia bana ate-
ratzen diegu dena idatziz, eta horrela bakoitzak
badaki noiz, nola, sartu behar duen programan.

ISILIK: *Ebaluatzeko garaian, zernolako presentzia du
tailer-lan horrek?*

IRAKASLEAK: Tailer-lana apartekoa da.

ISILIK: *Eta aurkezlea beti bera eta bakarra izaten al
da?*

IRAKASLEAK: Ez, denak pasatzen dira; errotati-
boa izaten da, txandaturuz, arlo desberdinetatik
pasaturuz.

ISILIK: *Nola lantzen duzue arduradun bakoitzaren
«rola»?*

IRAKASLEAK: Lehen ez dugu esan, hiruhilabe-
tez behin tailer guztiak aldatu egiten ditugu,
guztiei aukera berbera eman nahirik.

Orduan, hiruhilabetearen lehen hamabostaldian
aparailuen funtzionamendua eta abotsaren lan-
keta irakasten diegu. Guk dugun akatsik han-
dienetakoa hain zuzen, abotsarena dela iru-
ditzen zaigu. Haurrak askotan ez du bereizten
entonazioa esate baterako, ez bait da gauza bera
irakurtzea eta mintzatzea. Eta hor dago egin
beharreko lan handi bat, dexente landu beha-
rrekoa, alegia.

ISILIK: *Nola antolatzen duzue gaia?*

IRAKASLEAK: Guztion artean prestatzen da
gaia, hots, gela bakoitzak bere lantxoia du, gero,
emisioa aukeraketa baten ondorioz egiten da,
sei edo zortzi gai. Gure asmoa behintzat zatitze-
ko garaian taldeka egitea da; maila bakoitzen
laupabost talde; orduan bakoitzetik hiru talde
hartu ondoren, beraien ardurapean geratzen da
agerpena egitea, txandaka alegia.

ISILIK: *Hasiera Zikloan ere egiten al duzue zer-
bait?*

IRAKASLEAK: Hasiera Zikloan ere sartu
nahi dugu tartetxoren bat. Pentsatu duguna
zera da: Erdiko Ziklokoek emititzen duten egu-
nean, lehenengoko saiotxoia (bost minutu edo),
Hasiera Ziklokoeki ematea, egun hau asteazkena
izango litzateke seguruenik.

ISILIK: *Nolatan hasi zineten?*


IRAKASLEAK: Gure historia luzea da. Duela
bizpahiru urte martxan jartzeko asmoa hartu
bagenuen ere, oso luze joan zaigu, alde batetik
diru problemak zirela, bestetik, arazo tekni-
koak, e.a. zirela medio, luzatuz joan zaigu.
Dena den, aurrera atera badugu, talde batek
bere laguntza osoa eskaini digulako izan da, oso
zaila baita bi laguneren artean guzti hau aurrera
ateratzea.

ISILIK: *Noren laguntza konkretuki, herriko gaz-
teena ala beste norbaitena?*

IRAKASLEAK: Gure taldean bada zenbait la-
gun teknika mailan oso jantzia dena eta, hauei
esker batipat, bestetik aldiz, koadrila mailan
gogo handia zegoen helburu jakin batzurekin
Irrati bat martxan jartzeko eta orduan asmo
hau bultzatuz joan gara teknika horiekin batera;
horiek esan bait digute zer erosi behar zen, non
erosi, e.a.... Beraz, laguntza hau oso inportan-
tea izan da guretzat.

Eta norbaitek xehetasun gehiago nahiko balu
Ataungo Herri Eskolan eman diezaiokegu.

ISILIK



SATORRA IRRATIA:

A Ereduan euskara irakasteko irrati baten erabilpenak duen eraginkortasuna

1. Sarrera

Arazoaren planteiamendua

Gure «Pablo Garaikoetxea» Herri Ikastetxea Lasarte (Gipuzkoa) herrian kokatzen da. Hiriaren hizkuntz egoera euskarari dagokionez ez da egokiena. Ikastetxeak jarraitzen duen hizkuntz eredu ofiziala A Eredua da; beraz, haurrek beraien euskararen ikasketa asteroko hiru ordutan oinarrituta dute.

Ikastetxean euskara bultzatzea beharrezkoa zela ikusirik, proiektuaren ideia 1982-83 ikasturtean sortu zen; eta guk kontsideratzen genuenez A ereduak zituen ordukin ez bait zen nahikoa euskara ikasteko eta emaitza pozgarriak lortu ahal izateko.

Aipaturiko ikasturtean irrati jartzeko azterketak egiten hasi ziren eta 1983ko martxoaren hasieran lehenengo programak ematen. Programa hauek ikasturte barnean eta egitarau experimentalak bezala, Euskara Departamenduak eginak ziren.

Lehen hilabeteetako esperientziaren ondoren, emaitzak aztertu eta honoko galdera honetan oinarritu; zer gertatu zatekeen ikastetxean ikasleek euskara irakasteko irratiaren laguntzarik izan ez balute?

Emaitza positiboak zirela ikusiz, 1983-84. ikasturtean ikerketan jarraitu genuen, hipotesi bat formulatuz, eta baita ere metodoak eta lan teknikoak hautatuz.

Projektu hau ondo garatzeko, mailaka eta zikloka lan exhaustibo bat egin zen, ea zenbat euskaldun eta erdaldun zeuden jakiteko; baita ere inkestak pasa zitzaizkien ikasleei euskara ikasteko orduan zeukaten jarrera baloratzeko. Honez gain emisio tipo ezberdinak sartzea erabaki zen ziklo ezberdinetako euskara mailaren arabera, eta helburuak eta edukin espezifikoak mailaka ukitu ziren.

Ikasturte erdi aldera, irakasleen artean berriro inkestak egin ziren, irrati emisioek euskararen ikasketan eta hizkuntzarekiko beraien egoera efektiboan nolako eragina eduki zuten jakin asmoz.

Azkenik, ikasturtea bukatuta, emaitzak aztertu ziren eta hauek ikusiz, 1984-85 ikasturterako jorkaera batzuz proposatu ziren.

2. Hipotesia

A Ereduko ikastetxe batetan Euskarak dituen orduak ez dira aski motibazio positibo bat burutzeko. Hau ikusiz, «ikasleen hizkuntzarekiko harremana areagotzen baldin badugu irrati emisioa dela medio, ikasleak euskararengana hurbilduko dira eta hizkuntza honen ikasketan beraien emaitzak ere hobetuko.

3. Antolaketa edo prozedura

Iragan ikasturtean emisio orokor eta globalekin lan egin zen bati-pat, eta honela mailaka eta zikloka-ko programa espezifikokoak ez ziren lortu. Nola egiten ziren emisio orokor horiek? Sarrera eta irteera momentuaz baliaturik 5 minututako irratsaio labur batzu emititzen ziren (egunero lau). Saio hauen edukinak ikastetxeko Euskara Departamenduak burutzen zituen helburu eta edukin minimoetan oinarrituz.

Ikasleen partaidetasunari dagokionez borondatez, eta errotazio sistimaz, maila guztiak pasatuz burutu zen. Ikasleen emisioetan parte hartzeko interesa beheko kurtsoetan handia zela ikusi genuen baina, eta zenbat eta maila goragokoak izan partaidetza urriagoa izan da.

«Satorra Irratian» egindako lanaren beste eite bat zera izan da: ospakizun bereziekin zerikusia duten gaiak emisio programetan sartu (Olentzaro, Sto. Tomas eguna, Ihauteriak, Sebastian Deunaren eguna, Zuhaitz eguna, Korrika...), eta gauza guzti hauek, ariketak egiteko giro hobea lortzen zuten.

Irratsaioaren barnean beti agertzen ziren honelako edukinak: agurrak, eguraldia, ordua, asteko egunak... Eskolaurre eta Hasiera Zikloko ikaslearentzat lehiaketa berezi batzu sartzen ziren pista batzuren bitartez pertsonaia bat igartzeko. Abesti batzu ere sartzen ziren.

Ikasleen erantzunak batzeko buzoi bat zegoen (Satorra Buzoia), astero zozketak egin eta emititzen ziren; noizbehinka irabazleak eta beste batzutan aldiz, partaideak orokorki sarituz.

4. Emaitza eta ondorioen interpretazioa

Guk jarri genituen kriterioak ikusita, emaitzak onak izan dira orohar; edukinak ikasteari dagokionez aldiz, talde erakusgarri guztietan % 69 baino gehiagoko gorakada somatu bait zen. Erakusgarriak adin eta maila ezberdinetako haurrak izan arren, talde ezberdinetan ikasketari buruzko diferentzia handirik ez zen igartzen; edukinen ikasketak ikasleek eginiko emisioetan (ez entzunaldian) oinarria zutenik ere ez zen ikusi.


Gure hipotesia baieztaturik geratu zen, zeren ikasketa prozesua bizkortzeko errefortzu eta motibazioa lortuta, irratsaioaren entzunaldia *eragile* kontsideratu bait zen.

Ikerketaren prozedura hobetu zitekeen arren, gauza bat dago argi eta garbi: Euskararen ikasketan ondorio hobeak atera dituela Satorra Irratiaren bitartez, emisiorik gabe baino.

Ikastetxean irrati bat edukitzean, aukeran jartzen dizkigu baliabide guztiak gehiago erabiltzea eta ikertzea; medio berriak aurkitzea eta aplikatzea, eta horixe da datorren ikasturterako proposatugun eginkizuna.



EUSKARA
DEPARTAMENDUA
*Lasarteko «P. Garaikoetxea»
Herri ikastetxeko Irakasle
Taldea.*



Teatroa Lantzen

SARRERA

G. Etxeberria

Gure teatro idatziaren historia aski laburra dela gauza jakina da. Hain zuzen, XVIII. gizaldian azaltzen zaizkigun bizpahiruak alde batetara utziaz, esan dezagun XIX. gizaldian hasten dela, lehenengo eta hasiera emaila Martzelino Soroa izan zelarik.

Hasiera ere nolabaitekoa izan zen. Gure Martzelino arazo politikoren bat tartean, atzerrira joan zen ihes, hain zuzen Ziburura. Han zegoela eta ez bait zen bakarra, talde hark dibertsioa nahi eta elkarte bat muntatu zuen «El Trueno» izena ezarri ziotelarik. Izenak berak adierazten du zeharka gazte haien asmoa. Zarata eta alaitasuna zuten helburu. Haien errepresentazioei, ondorioz «La Tempestad» deitzen zioten.

Ingurune horretan bururatu zitzaion Martzelino Soroari lehen teatroa idaztea «Iriyarena» izenekoa. Erdaraz izanik, zenbait esaldi besterik Euskaraz ez zituen. Aski harrera ona izan zuen. Gero berehala itzuli eta Donostiako zenbait sozietatetako bazkide izan zen. Ezaguna da gaur egun ere «Unión Artesana» deritzon elkarte.

Ingurumari horretan eta garai haietan pil-pilean egonik Donostiako Lore-Jokoen berpiztea, Jose Manterola bultzatzaile nagusi, ostera aurkeztu zuen bere teatroa IRIYARENA delakoa. Han azaltzen ziren hiruzpalau Euskarazko esaldiek sekulako arrakasta izan zuten. Bitxia ere badirudi gaurko ikuspegitik egoerak, halako zenbait esaldirekin jendearen lilura sortzeko. Kuriositatez ere merezi du haietakoren bat jartzeak. Hara han azaltzen den zenbait esaldi:

- «Aizac Vishente, caniquic bayaldec?»
- «Es. Atzo el rey paga eguitiatecan».

Hau entzun eta farrez algaraka lehertu omen zen jendea. Agian garaiak halakoak eta garaiko Euskararen kontextuan esplikatuz beharko litzateke fenomeno hau.

Dena den, ondorioak onak izan ziren, zeren halako harrera ustegabeko hark animatu bait zuen Martzelino Soroa bere lehen euskal teatroa egitera, «Anton Kaiku» alegia, guk geure azterketarako aukeratu duguna. Geroztik beste zenbait teatro ere idatzi zuen, bere inguruan halako mugida bat sortu zelarik.


Horra bada, hitz laburretan gure teatro berriaren sorrera, aski umila eta ez maila handikoa, bere helburu nagusitzat jo daitekeelarik Euskararen plazaratzea, teatroa bultzatzea eta jendeari tartegune bat ondo pasaratzea. Geroztik etorri ziren jarraitzaileek, Toribio Alzaga, Abelino Barriola eta zenbait entitateren sorrerak mugida hau sendotu zuen, harik eta guduak ebakia eman arte.

ANTON KAIKU teatroaren azterketa

O. Inguratze lana

Esan berria dugu teatro honen sorrerako zenbait zertzelada, nahiz Martzelino berari buruz ere gehiegirik esan ez badugu ere. Haren berri jakin nahi duenak, hor du zenbait bibliografia, eskurakoien artean zerak direlarik: Patri Urkizu-ren EUSKAL ANTZERKIA, Euskal Antzerti Zerbitzuak, 84. urtean argitaratua eta baita ere Jakin-en 37. alea, iragan urtean publikatua.

Beraz, ikasle batek behin goiko ziklo batetatik aurrera bederen, neurritxoan izanik ere gauza izan beharko du bere kabuz, edozein autoreren berri handik eta hemendik ateratzeko. Garaian kokatzea, testuinguru kultura eta sozialean kokatzeak abantaila emango digu eta bestela, ergelkeria iruditu daitezkeen zenbait xehetasunek zentzu osoagoa hartuko du.



I. Alderdi mimetikoa

Eskema honetan, Txuma Lasagabasterrek bere eskoletan baita era Ig. Aldecoaren nobela aztertzean erabiltzen duen teknika semiotikoa erabiltzeko dugu, hots, zer dioen alorretik, zer sinbolizatzen duen arte iritsiko gara. Uste bait dugu eskema hau, orokorrean, baliagarria dela teatro azterketan ere.

Ondorioz, alderdi mimetikoak, «zer esaten duen» alorra begiratuko du. Uste dugu Euskara errazean dagoela eta ez duela hiztegi gehiegirik eskatzen. Agian zenbait lokalismok, kasuan donostiarkeriak zaildu dezake apurtxo bat, ez halere gehiegi. Grafia, Auspoak azaldu zuen bezala (Auspoa, 2. alea) errespetatzen dugu eta batuan nahi duenak, hara hor eskolan egin dezakeen ariketa polit bat.

Badaudé halere, zenbait hitz begiratzera behartuko gaituztenak: mantarrak (abarken mantak), illerantzia (peluca), bilgoa (kizkur), kapela (sonbrai-lua), gopa (kopa), zulepakia (zulo ebakia), kaikuba (ontzi moeta bat), arbasta (makila), erralde (neurri bat), asberapena (suspirioa), kaltarraitu (kalte egin), keraldia (geraldia), mintsu (min duena), eskudatu (defendatu), atzaldia (atzekaldea), baztanga (viruela), kontugabetu (deskuidatu) eta besteren batzu...

Dena den haria erraz jarraitzen zaiola uste dugu. Irakurlea ohartuko zen jadanik, hizkuntza honen erdalkeriaz, zenbat lokalismo azaltzen den, bai inko-rrekzio batzu ere. Halere, hizkuntza bizia, alaia eta erreala da, ez aberatsa.

Argumentua Anton Kaikuren inguruan bilbatzen da, haren ateraldiak dira nagusi, bere nagusiarekin duen gorabehera guztia zurrizko eskribaua la-guntzaile duela sortzen den liskar guztia.

Irri antzerkia denez, hango gertakari guztiak zutabe horren inguruan dute bere zentzua.

Ez dut uste, horrelako antzerkietan egiantzarik baduen ala ez galdetzeak zentzu handirik duenik.

ANTON KAIKU

Egintza bakarra

Biltokiak aurkeztatzen du irudite-gian burtina altxatzen danean, mendi basati eta zulepakia, arkaitzez betia. Arbola erdi-erdiyan eta onen aurrean, alkiluzia ta maya. Ezkerretara eskribauen etxia.

LENBIZIKO IRUDITEGIA

I

(Artzayak mendi gañetatik jeisten dira kantari xaxi danboliñaren doñuan eta Kathalin dago bian arbola-ren onduan ayeri begira).

Artzayak:

*Goiza ederraren señalia du
gaur agertzen dan denborak
txiki batekin kontentu gera
mendiya ontako artzayak.
Jan eta erateko ardurik gabe
bai ere ezkontzeko gizon gayak,
txiki batekin kontentu gera
mendiya ontako artzayak.*

*Eskui ezker artzen da egillearen
aldetikan.*

*Guazen, guazen,
guazen, iji, aja,
jetxi, jetxi
aldapa presaka.
Kaiku esnia, kaiku esnia
salduta tabernara,
kaiku esnia, kaiku esnia
salduta tabernara.*

*(Kanta au bukatzian artzai batek
galdetzen dio bestiari).*

*Artz. 1.^a: Aizak, Joxe Batista, bai
al dek belarrik?*

*Artz. 2.^a: Bai, To, Gergoriyo (boi-
natik aterata).*

*(Bitartia ontan beste ixkiñan dau-
den artzayak festak egiten dizkate
Kathaliñi eta gero beste doñuan
kantatzen dute au).*

*Beti umore onarekin
emen gera artzayak
gora bera irrintzika (ojuba)
menditik guztiak.
Dantzatu zagun bada (dantza)
utzirik kaikubak
neskatxa bana artuta (ojuba)
guazemak, mutillak.*

(Bigarren aldiyan kantatzen di-juaz eskui aldetikan mendiyik igo gabe errira bezela eta Kathalin ayen atzetik aita etxetik atera bitartian).

IRUDITEGI BIGARRENA

II

KATHALIN ETA ESKRIBAU

(Eskribauak asarre bi bider oju egiten du barrenen Kathalin! eta ateratzekuan au).

*Kathalin, io kirtena!
nabill zoraturik
ukullutik ganbaara
zu ezin billaturik.*

*Kathalin; Aita, zer nai du bada?
Eskrib.; Naukazu baraurik.
Kathalin; Beriala gosaitan emango diot nik.
Eskrib.; Atariyan zabilta beti da jakiña.
Kathalin; Zergatik aitu detan emen danboliña.
Eskrib.; Danboliñikan gabe dantzatuko ziña, artuko banuke nik arbasta bat fiña.
Kathalin; Ez naiz orla biziko (nagarrez) denbora luzian.
Eskrib.; Utzi nazu, Kathalin, oraintxen pakian.*

*Kathalin; Pakea seguruba dauka ni ezkontzian, beste moduz ez dago pakerik etxian.
Eskrib.; Erromerietako zera txit berdiña bañan zure majua ez da zure diña
Kathalin; Orrek ematen diyo bedorri, bai, miña.
Eskrib.; Alperrik zabiltzala daukazu jakina. Zuk nai dezun majua neri gustatze'etzat; ez du duk aña erralde...
Kathalin; Bañan...
Eskrib.; Ixillik zaude, ez da ona zuretzat. Ezkondu nai badezu billatu beste bat.
Kathalin; Maitasunikan gabe nai du ezkontzia?
Eskrib.; Ta zer da maitasuna okelik gabia?
Kathalin; Biotzaren jakiya zerutik jetxia.
Eskrib.; Biotzaren onduan tripa dago ordia. Arrek senti bear du, gorputzak okela, bestela gertatzen da maitasun motela.*

*Kathalin; Bedorren esaerak ematen dit jela, feriatu nai gaitu txekorrak bezela.
Eskrib.; Kathalin...
Kathalin; Prestuba da nai detan mutilla.
Eskrib.; Guztiak ezkongaitan txit prestubak dira Ezkondu eta gero aitzekiak milla, maiz estuasunekin ogiyaren billa.
Kathalin; Orrekiñ ezin bada ez det nai besterik.
Eskrib.; Alperrikan zabilta, Kathalin, alperrik...
Kathalin; Biotz guztiya daukat oso penaturik... (nagarrez)
Eskrib.; Ez dago bildurrik
Kathalin; ¡Aita!
Eskrib.; Eta aitona amandrearekin ez dirade artaratzen gauza ontan zurekin.
Kathalin; ¿Nik zer egin biar det?
Eskrib.; Aizazu, Kathalin, gosariya ondo jartzen alegiñak egin.
(Kathalin aurretik asberapena aundiarekin eta Eskribaua etxian sartzen dira).*



II. Alderdi poetikoa

Une honetan erabiltzen dituen errekurtsuak aztertu beharko ditugu, «nola esaten duen» alegia.

Irri antzerki bat dela esan dugu, beraz, antzerki askotan gisa den bezala hemen ere aurki ditzakegu zenbait ekintza eta eszena.

Ekintza bakarreko antzerkia dugu hau, alegia, ez dago tartegune libreetan zatitua, ez du atsedendirik. Eszenak, alegia, norbait eszenarioan sartu edo irten egiten den aldi bakoitzeko eszenak hamabi dira.

Unitate dramatikoei gagozkiolarik, hauek lege klasikoan arabera betetzen dira: ekintza, denbora eta lekua.

Ekintza bakarreko irri antzerkia, alegia, hari guztia Anton Kaikuren pikarokeria artean desarrolatzen da, beste bigarren mailakoak haren inguruan garatzen direlarik.

Ekintza guztiz xumea eta inongo trazezientziarik gabea, artzaien partizipazioa eta eskribauak alabarekin dituen gorabeherak ekintza nagusia girotzeko jarrita daude, umorea eta broma tartean delarik.

Ekintzaren aktanteek edo egileek, holako mailaketan jar ditzakegu:

A) Nuklearrak edo nagusienak. Anton Kaiku, haren inguruan bilbatzen da argumentuaren haria. Maila beretsuan jar ditzakegu «Eskribaua» ere, tipo interesatu eta diruzalea.

Antagonista, nagusia izango da. Anton Kaiku lapurretan topatuta haren ordaina exijituko diola dioen bitartean sekulako jipoia ematen dio.

Azken aldera Anton Kaikuren antagonista gertatuko da eskribaua, ordaina eskatu eta honek ez diola emango adierazten dioenean.

Justizia egiterakoan «alkatea» ere protagonista gertatzen da eta haren antagonista eskribaua.

B) Aguazila eta Katalin, bigarren mailako pertsonaiak dira eta haien zeregina ere halakoxea da. Pertsonai nagusien osagarri gertatzen dira. Artzaiak ere bigarren mailako pertsonaiak dira, antzerkia girotzea beste eginkizunik ez dutelarik.

D) Antzerkiaren destinatarioa ikuslegoa da eta irri antzerkiari dagokionez, hori lortu nahi du, ikuslegoak ondo pasatzea, ondorioz, epailea ere bera izango da.

Denborari gagozkiolarik, hasi eta buka segidan egiten da. Horrelako auzi batek errealitatean iraun dezakeen denbora segidan ematen da. Errealitatean esaten dugun arren, denok dakigu honek ez duela errealitatea isladatu nahi, ez bait du halako helbururik.

Hirugarren unitateari buruz, lekuari alegia, leku bakarrean ematen da, aktuazioetan aski garbi ikusten den bezala.




Egiturari buruz, arazoaren aurkezpena edo hasierako egoera, Nagusia eta Anton Kaikuk gauzatzen dute batez ere. Antonek lapurreta egin ondoren Nagusiak kontu garbiketa martxan jarten du. Antzerki honetan lehenengo hiru eszenatan ematen zaigu.

Hurrengo partea, argumentuaren desarroiloa, laugarren eszenatik hasi eta hamaikagarren eszena artekoa delarik.

Multzo barnean nabari dezakegu progresio bat, tranpa pentsatzen dutenetik epaia alkatearen aurrean egiten den arte. Nagusiak eta eskribauak bere artean dituzten eztabaidek giro hori intentsifikatzen dutelarik. Klimaxa eta gune nagusia epaia bera da. Antonek «bee»ka erantzuten duen denbora eta eskribauak ordaina eskatzean eraberean erantzun ondoren alkatea engainuaz konturaturik, Anton eta Kaiku kastigatzen ditu. Beraz, VII-VIII-IX-X eszenak jar ditzakegu. XI. eszenan auzia jakina denez, deklinazioa dator, interesa jaisten da eta XII. ean bukaera.

Dena den, ipuin labur baten modukoa denez gero antzerki hau, interesa maila altuan mantentzen da antzerki guztian zehar, hartarako etengabeko ateraldiak biziki laguntzen duelarik.



Testu moietari gagozkiolarik antzerki bat denez, elkarrizketa da hemengo testu nagusia. Halere hasieran bada sarrera gisako agur bat eta bukaeran azken agur gisakoa artzaiek bertsoan egiten dutena. Artzaien hau kontsidera daiteke koroa. Bada eszena bat, laugarrena hain zuzen, Anton Kaikuren baka-rrizketa dena.

Testu honetaz aparte, bada beste testu moeta bat, parentesitan eta kurtsibaz azaltzen dena. Honen helburua, antzerkia egitean burutzen da eta hori da hain zuzen bere zeregina, antzerkia nola, ingurunea nola, janzkera, pertsonaien espresio eta antzekoak orientatzeko jarria. Honen balorea ez da literarioa baizik antzerkiaren errepresentazioari dagokio. Orduan dute zentzua. Dena da, gogora dezagun antzerki bat irakurtzeko baino areago errepre-ntatzeko dela. Errepresentaziorik gabe, erdibitua geratzen da, beraz, komentarioa ere halakoa gertatuko da.

Hizkuntza beraren kalitateari buruz, garaiko donostiar kutsua argi eta garbia da. Bere alderdi on eta akatsekin. Eta gauza jakina garai hartan Donostiak hizkuntza moeta korrante hau bere-berea zuela, nahiz eskola bati buruz ez dagoen hitzegiterik.

Ikus ditzakegu hainbat lokalismo fonetika alde-rik, inkorrektzioak ere badira: «lapurra». pagatu biar nak (III. eszena), «nagusiyak... esan nau» (V. esze-na), «konta nazu» (VII. eszena) etab... Baina baita ere lokalismo bikainak modismoak alegia: «ba al dek belarrik» (I. eszena), «txittoa bezala itoko nio-tek» (IV. eszena), «asto lukainka horrek» (IV. esze-na), «ezin sartuko naiz istilluba oyetan» (V. eszena). «Ez du baliyo ondo egitiak (V. eszena), «itzalera eraman» (VII. eszena), «lelo ta gor papera egin» (VII. eszena), «etzaitut txarretik libratu» (IX. esze-na), «eginak ez du baliyo» (X. eszena) etab...

Lexikoari gagozkiolarik guztiz herrikoia dela ai-tortu behar, bere erdalkeria eta guzti. Ez dirudi So-roa hitz berrien bila asko ibili zenik. Horrek herri hizkuntza itxura osoa ematen dio. Hizkuntza kolo-kialaren mailakoa da.

Bertsoek denetik dute, badira egoki moldatuak, eta nahiko traketsak ere, gehienak neurri txikian, lehenengoa dagoelarik neurri nagusian.

Egoki bat: Danboliñarikan gabe
dantzatuko ziña,
artuko banuke nik
arbasta bat fiña

Antzerkiaren zehar hamaika une bada ateraldiz beta eta ondorioz algara erraza sorrerazten duena. Irakurleak erraz aurki dezake:

Eskribaua: Eta esan ziraten zubetako bat
gero kartzelan il zala.



Anton: Egiya esateko enitzan ni ill.
Eskribaua: Bai, ikusten det (V).
Alkatea: Eta zer egin du orremeste arku-
merekkin?
Nagusiya: Ez dakit nik jan o zer.
Alkatea: Jan baditu bada, ezin tripatik ate-
rako zaizka (VI).

III. Alderdi sinbolikoa.

Honi gagozkiolarik, honen helburua zera zen: Euskara teatrorra sartzea eta jendeari farre egin era-ziz, tarte bat ondo pasaceraztea. Uste dut ongi lortzen duela.

IV. Azken eritzia

Norbaitek esan dezake agian, aukera hobe bat egin zitekeela antzerki bat aukeratu eta haren ko-mentarioa egiterakoan. Ene buruan izan dudana ez da izan puntako antzerki bat aukeratzea, baizik hain zuzen, gure hasierako teatro bat ezagutaraztea, eta gure teatro berriaren sorrerakoa, gainera. Onartua dago garaiko euskal teatroa ez zela kategoria handi-koa, aitzitik, apala zela. Ezta orijinala ere, hain zu-zen. Anton Kaiku hau Frantziako teatro zahar ba-ten gaia da: «La pharse du Maitre Phatekin», 1470 urtean aurkeztua. Martzelinok, halere, bere erara moldatu zuen.

Uste dut, bestalde, teatro hau eta hau bezalako beste asko, primerako gaiak direla eskoletan antzer-kigintza lantzeko.

Neu izan naiz, bestalde, teatro honen antzestea-ren lekuko OHOeko Goi Zikloan hain zuzen eta guztiz ongi pasa zutela esan behar dut. Honek ez du, noski, teatro berri batek duen garapena, ez da nahi bada, kanpo egoera baten eredu, baina baliaga-rria gertatzen da halere ikaslearen kapazitate forma-tiko eta komunikatiboa lortzeko, desinibitzeko, dik-zioa lantzeko, hizkuntza lantzeko eta ongi pasatze-ko.

IRUDITEGI IRUGARRENA
III
ANTON ETA NAGUSIYA

(Ateratzen da Anton ojuka eskuitatik nagusiyak kaltarraitzen dubela eta kolpatzen dubela esku makillarekin).

- Anton; *¡Ai! ¡ai! ¡ai! ¡aiiii...!*
 Nagusiya; *A lapurra! pagatu biar nak egin dekan ezker-rra.*
- Anton; *Jauna! ¿zer egin diot nik orrela jotzeko?*
 Nagusiya; *Égiñ ez, dezegiñ. Nik jarriko at oraiñ ez geyago arkumerik osutzeko moduan.*
- Anton; *¿Nik arkumiak ostu? Jesus!*
 Nagusiya; *Egin zak orain bobo papela.*
- Anton; *Gezurra da ba ori.*
 Nagusiya; *Gezurra? to, to, to, (joka) ia au ere gezurra dan?*
- Anton; *Ai! ai! ai!!!*
 Nagusiya; *¿Ez atan ikusi neronek atzo arratsian arkumia iltzen?*
- Anton; *Ba, jauna.*
 Nagusiya; *¡Aaaa! ¿Bai jauna, e? Tunantia.*
- Anton; *Egia da, bañan il nuben banekiyelako erozein aldetara're il biar zutela.*
- Nagusiya; *¿Seguru al ekikan?*
 Anton; *Ba, jauna.*
 Nagusiya; *¿Zergatik?*
 Anton; *(Buruba arraskatzen) Zergatik jayotzen dian guztiak gero ill egiten dira.*
- Nagusiya; *Bai e? I're bada iltzeko jaio aiz ta to, to (joka). Lapur, ijito, txerriya.*
- Anton; *¡Ai, ai, ai!!! nere buru guztiya iriki nau.*
- Nagusiya; *Oroituko aiz, ago pixka bat. Alkatari kontu ematera niak beriala.*
- Anton; *Ai nagusi jauna! Jaungoikoagatik barkatu bezait. Ondo pagatubak daude makillazua- rekin arkumiak eta arkumiarekin makillazuak.*
- Nagusiya; *Eun da ogei arkume falta zaizkiak eta eztiat,*

utziko i kanpantorretik zintzillik jarrita ikusi arte.


(Anton meatxatzen du eta irtetzen da).

IRUDITEGI LAUGARRENA
IV
ANTON (Keraldia)

Zer egiñ biar det nik orain? Alkatiarengana eramaten banau, txitua bezela itoko niotek! ¡Auxen da ixtilluba! ¡Eta gero Aralarren artzayak ondo bizi dirala esango dute! ¡A!! Eskribaua or bizi dek: orrek asko zekik. Tellatu ixkiñatik zintzilik jarrita emango liokek auzia eguzkiyari. Ondo pagatzen badiyot, aterako niok estuasunetik. Bañon gertaera da len zor dizkatala txanpon batzubenek! Alde guztietan zailltasunak. Onezkero eztek oroituko. ¡Au buruko miña jarri nau golpiarekin asto lukainka orrek! (atia jota) Abe Maria Puixima.

IRUDITEGI BOSTGARRENA
V
ANTON ETA ESKRIBAUUA (barrenen)

- Eskribaua; *¿Zein da?*
 Anton; *Ni, mintsu bat.*
 Eskribaua; *Miñez daguana ospitalera.*
- Anton; *Aguro eramango nau eskribau jaunak nere egitekua pixka bat luzatzen badu.*
- Eskribaua; *Ni ez naiz probiaren letraduba.*
- Anton; *Badakit, jauna, pobriak zeruban bakarrik dituztela letradubak.*
- Eskribaua; *Nik ezaguzen zaitut.*
 Anton; *Ez jauna.*
 Eskribaua; *(Aterata) Ez? Anton, bai, bai. Zubek bi anai ziñazten eta kartzelatik neregatik libratu ziñaten.*
- Anton; *Ba jauna.*





Eskribaua; *Eta esan ziraten zube-tako bat gero kartzelan il zala.*
Anton; *Egiya esateko enitzan ni ill.*
Eskribaua; *Bai: ikusten det. Eta zertara zatoz?*
Anton; *Ni bedorrek eskudatzeko nagusiyaren kontra.*
Eskribaua; *Oso egitekoz betia nago eta ezin sartuko naiz ixtilluba oyetan. (Aldeiten atzaldia eman ez).*
Anton; *Orra bada nik pagatuko niyoke seguru eta doble.*
Eskribaua; *(Kupituba) Gizarajua, tira, tira, ez da gaizki esana. Konta nazu egiaz guztiya.*
Anton; *(Buruba arraskatzen) Orra bada jauna..., ni naiz artzaya, bañon nola basuan beti egonda gauden, batek ez daki zer egiñ, eta gogoratu zitzaieran merkatarri sartzia.*
Eskribaua; *Zeñekin?*
Anton; *Arakiñarekin.*
Eskribaua; *Eta nola?*
Anton; *Nola bastangarekiñ arkume asko iltzen zan bastangatik libratzen.*
Eskribaua; *Ori txit ona da. Eta zer erremediyo ematen zenyon arkumiari?*
Anton; *Ill egiten nituben bastangak arrapatu bañan len.*
Eskribaua; *Erremediyo seguruba da.*
Anton; *Bai aisa. Lengo arratsian ere bazeguan arkume bat artza añakua eta ÷zer egin niyon? sartu niyon lepotik labana eder bat eta, nola ta zergatik jakin gabe, etorri zitzayon min bat eta artatik il zan.*
Eskribaua; *Eta iñork etzuben ikusi?*
Anton; *Ez jauna. Nik uste det iñork etzubela ikusi... nagusiyak besterik, eta orain esaten nau eun da ogei falta dirala eta pagatzeko, eta nola dakiten erriyan gizona*

orrek egiya esaten dubela, txinistuko diote. Orra mesede eginda zer eskerrak. Nik ill eta arakiñari saltzeko bialdu, diru pixka bat artu arakiñak eta nik, eta bastangatik libratu eta orra. Ez du baliyo ondo egitiak.
Eskribaua; *Eta nagusiyak zer probetxu zuben?*
Anton; *Bastangatik libratzia.*
Eskribaua; *Eta zer esan dizu?*
Anton; *Esan? Egiñ, egiñ eiñago.*
Eskribaua; *Zer egin dizu?*
Anton; *Zer? Makillazoka josi eta buruba autsi.*
Eskribaua; *Gizarajua. Eta zer nai dezu oraiñ?*
Anton; *Nai detana da ondo atera alkatiaren aurrian deitzen naubedian.*
Eskribaua; *Bi bide bakarrik daude ortarako.*
Anton; *Bota lenbizikua.*
Eskribaua; *Lenbizikua da zu urkatzia lapurtzat.*
Anton; *Etzait gustatzen. Ia bigarrena.*
Eskribaua; *Gaitza da, zergatik arrazoya ez dago zure aldetikan, bañan ipiñiko det naspilla bat JURIDI-TRANPILEGAL deitzen dioguna.*
Anton; *Jaungoikoak pagatuko diyo eta nik ere bai, ortarako da berorri plumazko gizona.*
Eskribaua; *(Asarre) Aizazu, ni naiz ezur da aragizkua, ez plumazkua.*
Anton; *¡Ai ni ere ala banitzake! Enituben sentituko orremeste eman dizkian golpiak.*
Eskribaua; *Beaz gogor jo zaitu?*
Anton; *Ba jauna, bai.*
Eskribaua; *Eta alkatiarengana deitzeko gelditu?*
Anton; *Ba jauna, bai.*
Eskribaua; *Kontu artu bada ondo nik esaten dizuanari.*
Anton; *Etzait burutik juango.*
Eskribaua; *Galdetzen dizuen gauza guztiari eta egiten dizuen arguimenduari ez esan beste gauzik ardiyak mendian zuri*

deitzen dizutena beizik.
Anton; *Ondo da.*
Eskribaua; *Arkumiak bezala itza egin.*
Anton; *Ba jauna.*
Eskribaua; *Ez gero kontugabetu.*
Anton; *Ez jauna, ez.*
Eskribaua; *Bañan badakizu, aixkiri, gauza au ondo pagatu biar dala.*
Anton; *Ba jauna, bai. Badakit nik tranpak asko kostatzen dirala.*
Eskribaua; *Ara, alkatia emendik ikusten det kontzejua datorrela eta jungo gera nik txapela ta eskumakilla artuta. (Sartzen da etxian gauza aben billa).*
Anton; *Au da gizona au! Onek txinistaraziko loke egunez arratsa dala.*
Eskribaua; *Tira, guazen.*
Anton; *Guazen.*
Eskribaua; *Ez aztu leziyua?*
Anton; *Ez jauna.*
Eskribaua; *Guazen emendik eta bitartian zerbait geyago erakutsiko dizut.*
Anton; *Ba jauna, bai.*

(Ateratzen dira eskuitatik eta Alkatia, Nagusiya eta Aguzilla agertzen dira ezkerretatik).

IRUDITEGI SEIGARRENA

Alkatia, Nagusiya, Aguzilla

VI

Alkatia; *Zenbat arkume falta dira?*
Nagusiya; *Egun da ogei.*
Alkatia; *Eta zer egin du orremeste arkumerekina?*
Nagusiya; *Ez dakit nik jan o zer.*
Alkatia; *Jan baditu bada, ezin tripatik aterako zaizka.*
Nagusiya; *Nik legez nere zuzena eskatzen det.*
Alkatia; *Egingo det justiziya biar dan bezela.*
Aguzilla; *Jauna, maya, alkiluzia, tintontziya, papela eta pluma prest daudez.*
Alkatia; *Ixiri gaitian bada. (Alkatia ixiritzen da. Nagusiya gelditzen da*

zutik ezkerretara eta Aguzilla eskuitara pixka bat atzealdian. Eskribaua ta Anton ateratzen dira lengo bidetik eta jartzen dira Nagusiyaren aurrez banan Anton urrutiyena iya burtiña altxatzen danen ixkiñan).

IRUDITEGI ZAZPIGARRENA

VII

LENGUAK ETA ANTON TA ESKRIBAU



Eskribaua; (Antonio azaltzekuan) Badakizu zer esan e?
Anton; Ba jauna.
Nagusiya; Eskribauarekin datorrena da pillua ori.
Aguazilla; Egun da ogei arkume janda ezta asko gizen du.
Eskribaua; Alkate jauna; ni nator au eskudatzea.
Alkatia; Asi gaitian. (Idi zintzarri aundi bat jotzen du? Nagusiyak salatu dezala.
Nagusiya; Arkumiaren lapurreta proгатuko det. Neroni naiz testigu.
Eskribaua; Iñor ezin liteke izan testigu bere gauzan.
Nagusiya; Bai besterik ez danian.
Eskribaua; Ez.
Nagusiya; Bai
Eskribaua; Ez
Nagusiya; Bai
Eskribaua; Ez
Nagusiya; Bai
Alkatia; Ixoooo (zintzarriya indarrarekin dabillega). Kulpagarri deritzayonak zerbait argi eman-go ditu.
Nagusiya; Ori da. Begiratu besterik ez du: orren arpegiyak berak esaten du lapurra ta gaixtua dala.
Eskribaua; Poliki gero emen itza oyekin!
Nagusiya; Biyok ere alkarren antza badezute.
Eskribaua; Zu izango zera lapurra.
Nagusiya; Zu aundiagua.
Eskribaua; Zu

Nagusiya; Zu
Eskribaua; Zu
Nagusiya; Zu
Alkatia; iEee! iIxooooo!! (berriz ere zintzarriyarekin).
Aguazilla; lenbizi albo-rotatzen aste'ana, itzaleran eraman. Tira, atoz onara (Antoni, bañon Anton ez da mogitzen).
Arrima; ez al dezu aitzen? Aixkiria nola dezu izena?
Anton; Bee. (Beadia egin biar du)
Nagusiya; Gezurra. Anton du izena.
Alkatia; Anton ala Be ez du inportik. Konta nazu.
Egiya al da jauna onen arkumiak gordetzen dituzula?
Anton; Beeee (geruago ta beadi gogorrago eta luziago).
Alkatia; Zer?
Anton; Beeeee.
Nagusiya; Orain lelo ta gor pape-la egin nai al dek?
Alkatia; Jauna oni falta al zaizka eun da ogei arkume?
Anton; Beeeeeeee.
Alkatia; Nundik ekarri dezu izkera berriya ori? Egiya al da nagusiyak zu ikusi zaitubela arkumiak iltzen?

Anton; Beeeeeeeeee.
Alkatia; Zer esan nai du onek? Bai al dakizu zeñen aurrian zauden orrela agertzeko?
Anton; Beeeeeeeeeeee.
Eskribaua; Onek esan nai dubena da, justiziya eskatzera datorrela eta nik proгатuko det nagusiyak buruban eman dizkan kolpiak zentzua itzuli azi diyotela eta legez dago illa, zergatik animako izate moduak faltatu zaizkan, eta ori da okerrago gorputz bat iltzia baño. Biziya kendu diyo, zergatik kendu dizkan irabazteko moduak, eta il biar baldin bada gizon bat arkume batzubengatik, nik eskatzen det gizona orrela iltzen dubenarentzat lepoko pena.
Alkatia; Nagusi jauna, txit gaizki ikusten det zure auzia.
Nagusiya; Gaizki?
Alkatia; Ez al da ezer alkatia? Justiziya zure eskutik egin, eta jotzia basta etzala buruban jo?
Nagusiya; Batek arrabiyarekin ez da konturatzen nun jotzen duben!



- Alkatia;** *Kondenatuba ateratzen zera. ¡Gizona estaduba ortan utzi illa bañon okerrago!*
- Eskribaua;** *¡Ederki alkate jauna; Badegu rerum confidentem.*
- Nagusiyak;** *Zer konfite ta konfitero; O etsayak eraman biar dute o pagatu biar dizkit ardiyak.*
- Alkatia;** *Ez emen itzikan atera. Zuk pagatuko dituzu gastubak eta gañera sendatzeko biar dituben erremedio guztiak, eta ezkerak arakiñaren agintari zu zerala eta zuregatik ematen nautela aragi ezurrik gabia, bestela onezkero agindu nuben txitua bezela itotzeko. Eta Anton gizarajua lenbailen sendatzeko biddian jarri.*
- Nagusiya;** *Apelatu egingo det.*
- Alkatia;** *Pelatuko zaitu eskribauak seta orrekin segitu nai badezu.*
- Nagusiya;** *Arrapatuko zaitut, tulantia! (Anton meatxatzen eta ateratzen da).*

IRUDITEGI ZORTZIGARRENA

VIII

LENGUAK, NAGUSIYA EZ BESTE GUZTIYAK

- Eskribaua;** *Tira, Anton, agurmenak egin alkate jaunari eta eskerrak eman.*
- Anton;** *Bee... Bee... Bee...*
- Alkatia;** *Eskribaua, kuidatu gizarajua ortzaz ia erremediorik ote duben.*
- Eskribaua;** *Nere kontu. Nagusiya-ren boltsillutik.*

IRUDITEGI BEDERATZIGARRENA

IX

ANTON eta ESKRIBAU (Keraldia)

- Eskribaua;** *Aixkidia, etzaitut txarretik libratu! Nik uzten bazaitut, leptik soka jarrita artzen du gizona pisura. Orain nai det ikusi nola portatzen zeran zu.*
- Anton;** *Bee...*
- Eskribaua;** *Bai, ederki egin dezu papela. (Alde guztieta begidaka) Inork ez gaitu ikusten. Ia bota diruba.*

- Anton;** *Beee.*
- Eskribaua;** *Ba. ba. utzi zazu tontakeiya ori eta agindu nazun bezela ekatzu doblia.*
- Anton;** *Bee, beee.*
- Eskribaua;** *Zer? Nitzaz burlatzen zera?*
- Anton;** *Bee, bee, beeee.*
- Eskribaua;** *Ori ez, arranua, ilko at, lapurra. (Segika ta joka esku-makillarekin).*
- Anton;** *Ai, ai, aiii! Ez al da jenderik laguntzeko?*

IRUDITEGI AMARGARRENA

X


(Sartzen dira presaka Alkatia, Nagusiya, Aguazilla eta Artzayak, eta guztiyak esaten dute);

- Guztiyak;** *¿Zer da, zer da?*
- Eskribaua;** *Ijitua onek auzia irabazi eta eztit nai pagatu.*
- Alkatia;** *Zeñek esaten dizu ori zuri?*
- Eskribaua;** *Berak. (Presaka batere kontugabetu gabe).*
- Alkatia;** *Ez al da bada mutuba?*

- Eskribaua;* Ez jauna.
Nagusiya; Alkate jauna, egiñak ez du baliyo.
Alkatia; Zer gertatu da bada emen?
Anton; Eskribauari pagatu berak egin duben saltsa bat beste batekin.
Alkatia; Tramposo bati beste aundiyagua?
Anton; Ba jauna.
Alkatia; Bañan nola?
Anton; Berak esan zian bedorrek esaten zian guztia-ri Beee erantzuteko, eta berari beste Beee batekin pagatu diyot zor diotana.
Alkatia; Bai e? Eta justiziyaz orrela burlatu? Aguzilla. (deika).
Aguazilla; Jauna.
Alkatia; Eskribaua eta Anton artzaya, giltzapian sartu beriala lotuta.
Aguazilla; Ondo da. (Lotzen ditu eta eramaterakuan erraten du jendiari:) Bat eta beste peste.

IRUDITEGI AMAIKAGARRENA
XI
**ALKATIA, NAGUSIYA
ETA ARTZAYAK**

- Alkatia;* Nagusiya, egingo da justiziya. Biyak kartzelan egongo dira. Eskribauak egun da ogei arkumeak pagatu arte, eta beti gogoan iruki guztiak, nola gaizki dabilienak gaizki bukatzen duben.
Nagusiya; Biba alkate jauna!
Guztiyak; Bibaaaaa!


IRUDITEGI AZKENEKUA
XII
**GUZTIYAK ETA AGUAZILLA
TA KATHALIN**

- Aguazilla;* Anton Kaikuk bi itz nai emen ditu egin kartzelan sartu bañan len.
Alkatia; Datozela bada. Solta zaskizu.
Kathalin; (etxetik aterata) ¡Aita!
Eskribaua; Eta aitona amandreakin... Kathalin, ezkon zaiten nai dezunarekin. (Gogo txarretik autezpaituia).
Anton; (Aurreratuta, jendeari itz bereztarrarekin) Orra bada, jaunak.

Bidian arkitu det

festa onen jabia,
ta esan dit larrituba
ez dalako obia,
bakarrik nai lukela
berok barkatzia,
eta txalo batzuben
gaur guri ematia.

(Artzayak eta beste guztiak juten dira berriz mendian gora kantatzen danboliñaren lengo doñuan).

Beti umore onarekin
emen gera artzayak
gora bera irrintzika (ojuba)
menditik guztiak.
Dantzatu zagun bada
utzirik kaikubak,
neskatxa bana artuta (ojuba)
guazemak, mutillak.

(Burtina jeisten da poliki poliki,
ayek goyetan agertziagatik).

BUKAERA

ISILIK

Zaragueta ikastetxea

- Orio -

76-77 Ikastaro honetan lehenengo aldiz hasi ginen euskera eskolan sartzten. Urte honetan Euskera asignatura bezala eman genuen lehenengo etapan.

77-78 Euskera asignatura bezela lehenengo eta bigarren etapan.

Baita ere 4 urteko hurrekin hasi ginen dena euskeraz eginaz.

Haur euskaldunak eta erdaldunak nahasturik zeuden eta andereñoak bi hizkuntzetan hitzegiten zuen.

78-79 Euskera asignatura bezela bi etapetan, lehen aipatu dugun bezala, eta beste plana 4 urtekoekin hasi genuena jarraitzen da kurtso honetan 4 eta 5 urtekoekin.

Urte hauetan burruka gogorak izan genituen irakasle euskaldunak lortzeko. Gorasoek lan asko egin zuten honetarako aurrera jarrai zezan.

Oraindik haur euskaldunak eta erdaldunak nahasturik zeuden.

79-80 Plana aurrera jarraituz lehenengo maila euskeraz jarri genuen. Lehen haurrak nahasturik zeuden esan dugun bezela, aurten hori aldatzen da. Haur euskaldunak talde batean eta erdaldunak bestean.

Euskaldun taldean dena euskeraz egiten da. Erdaldun taldean irakurketa eta asignatura basikoak erderaz eta gainontzekoak (eskulanak, gimnasia, musika eta abar) euskeraz. Hau da, goiza erderaz eta arratsaldea euskeraz.

Hemendik aurrera urtero kurtso bat euskeraz: Hau da oinharizko plana.

83-84 Plan hau bosgarren mailara iritsi da. Aurten 3 urteko hurrekin hasi gara lanean.

Gure helburua: Haur guztiak O.H.O. bukaeran bi hizkuntzak menperatzea izango litzateke.

Haur euskaldunak eskolaurretik dena euskeraz egiten dute, hirugarren mailan erderarekin hasten gara.

Haur erdaldunak eskolaurretik euskeraz eta erderaz hasten dira. Baina irakurketa eta idazketa euskeraz ez dira hasten erderakoak menperatu arte. Horregatik gure metodologia eskolaurrean eta hasierako zikloan euskera ikasteko antzerki bidez, txartelen bidez (ikus makusi) elkarriketa sortze eta abar.

Erdiko zikloan Aise 1 eta 2 erabiltzen ditugu.

Hasiera batean haurrak hizkuntza pertsona batekin identifikatu dezan, gela bakoitzean bi irakasle sartzten ziren.



Hau eskolaurrean eta hasierako zikloan ez da kome-
nigarria ikusi urte batzutan erabiliz gero, horregatik iaz
eskolaurreko talde batekin esperientzi bat izan genuen:
irakasle berak bi hizkuntzak erabiltzen zituzten. Espe-
rientzi hau oso positiboa izan zen. Lehen haur txikiek ez
zuten onartzen bigarren irakaslea baina berea bai eta bi-
garren hizkuntza gustora hartzen zuten. Horregatik aur-
ten eskolaurrean eta hasierako zikloan tutora berak bi
hizkuntzak erabiltzen ditu.

Gaur eguneko egoera

– Hiru Eredu ditugu:

Euskaldunak alfabetatzea.

«A» Eredua. Lau saio astero:

Erdaldunak euskalduntzea.

– Materi instrumentalak erdaraz: Hizkuntza-
Matematika

«B» Eredua:

– Beste guztia Euskaraz.

– Euskaraz dena.

«C» Eredua:

– 3. Mailatik hasita, lau ordu astero Erdaraz.

Azalpena:

«A» Ereduan:

- a – Euskaldunen alfabetatzea: Nahiz ete honetako meto-
do zehatzik izan ez, Irakaslegoaren prestakuntzagaz
kontatuz, %80 ikaslek menderatzen du O.H.O.n jarri-
tako Programakuntza, hots: nabari genezake mintza-
men eta idazmen egokia, baita ere literatur, bertsola-
ritza eta oinarrizko hizkuntzaren aplikapen idatziak.
- b – Erdaldunen euskalduntzea: Teknika: hizkuntza bera-
ren erabilera dugu lehen tresna, talde bakoitzari ego-
kituz eta neurriz emanez –progresioz–, taldearen be-
rezitasunak eskatzen du norainoko edukiak jarriko
zaizkion.

Adierazgarri bezala, Irakaslea «zerez» jabetzen
saiatzen da: mimo, keiñu, irudi, ormirudi, biñeta,
abestiz, e.a...

Denbora: Lau saio astero, hiru ordu edo hiru t'erd-
koak gutxi gora behera (ordu errealak).

Metodologia: Aktiboa, ahozka batez ere, azken maile-
tan gehituz idatzizko ariketak. Osagarri
bezala, oinarrizko mailan dauden ipuin
eta nobela erabiltzen ditugu beraien po-
sibilitateak landuz.





Borda-Eskolak

Nahita jasandako atzerriratze baten kronika

Azken hamarkadan Estatu osoan zehar ugaritu dira BORDA-ESKOLAK edota, nekazal eta baserri giroko eskola-ekipamenduak.

Gaur egun 25en bat eskola-ekipamendu gutxi gora behera beretik ez genituzke katalogatuko, (berauek katalogo egokiturik ez dagoelako. Azken katalogoa, M. Monge-ren liburuan «L'EDUCACION AMBIENTAL» en agertu zen, 1983ean.

Ezagunenak hauek dira:

- La Tesla (Burgosen)
- Can Girona (Bartzelonan)
- La Vola (Bartzelonan)
- Can Pau (Gironan)
- La Limpia (Guadalajaran)
- Vida Natural (Madrilen)
- Sukarrieta (Bizkaian)
- El Palomar (Madrilen)
- Montnegre (Bartzelonan)
- La Jara (Madrilen)
- El Molino de Lecrin (Granadan)
- La Tura (Madrilen)
- La Chimenea (Madrilen)

Guzti hauen adostasuna puntu hauetan datza:

1. Eskola-kanpoko ekipamenduak dira.
2. Batzu publikoak dira (Udalarenak, Diputazioenak, Gobernu Autonomoenak...) eta besteak aldez, pribatuak (kooperatiba antzekoak). Azken hauek erakunde publikoekin adostasun batera iristen direlarik.

3. Kokapena: Hiri handietatik bizi direnez, berauen inguruetan kokatzen dira; Esan beharra dago, beste herrialdeetan BORDA-ESKOLA hauek hirian bertan kokatzen direla bere erabilkera pedagogikoa askoz ere errazagoa eta merkeagoa delarik.

4. Ostatutza osoko eta astebeteko egonaldia antolatzen da 30-60 ikasleentzat, gutxienez.

5. OHO-ko ikasleagoa izaten da normalki.

6. Ekintza hauek nekazal (baratza, abeltzantza...), artesautza (saskigintza, larru-ontzegintza, gaztagintza...) eta natur gaiak (ibilaldiak, natur-tailerra...), e.a. izaten dira.

7. Eskulan eta gorputz ekintzeko metodologia aktiboa.

8. Eskolabideen egonaldiaren iraupen laburra dela eta, OHOk programaketa ofizialarekin oso gutxi koordinatuak, askotan zerikusirik ez duten programaketa laburrak.

9. Beste edozein ikastaro konbentzionalekin parekatuz gero, ikasle kopuru txikia dagokio monitorea bakoitzeko, 10-15 ikasle gutxi gora-behera.

10. Ikasleen arteko konbentzio eta lankidetzak bultzarazten da sukalde, garbitasun, logela eta festa giroetan, batipat.

11. Erabilitako bitarteko hezitzaileetan finantziabide mugatuak duen eragina da aipagarriena. Monitorean imaginazio eta borondateari esker, gaintzen direlarik as-

kotan. Egonaldi hauek hilabete batera luzatuko balira, gastuak ordainezinak gertatuko bait lirateke.

12. Irakasleentzat, eskualdeari buruzko materiale lagungarrien argitalpena (gidaliburuak, fitxak...)

Guzti honetatik atera daitekeen ondorioa zera da: BORDA-ESKOLA hauen funtzio bikoitza, alegia:

a. Hiriko haurren eguneroko bizitzatik hain hurrun dagoen natura eta baserriaren berraurkikuntza.

b. Egungo eskola sistimari interesatzen ez zaionez eta eragozten zaion programaketa lagungarria izatea.

Ekintza honek suposatzen duen berrikuntzazatik alde batetik, eta bestalde, sistema hezitzaileak bere ohiturak aldarazteko agertzen duen inertziagatik, beronen etorkizuna oraindik distiratsua izan daitekeela, pentsa araztera garama.

Orain arteko BORDA-ESKOLAK bere funtzioa betetzen ahalegindu dira, berrikuntza pedagogikoaren arloan batipat, (oso mugatua, gutxi direlako) baina etorkizunari begira, errentabilitate pedagogiko handiagoko ekipamenduak izatera zuzendu beharko lirateke, honoko baldintzok bete beharko lituzketelarik:

1. Hiri handien inguruetan edota, herrian bertan kokatu beharko lirateke, abeltzain eta nekazal eremuz horniturik (hiri jardineskolarrak) eta eskualdeko ikasleak landuko lituzketelarik.

2. Hezketa ofiziala osatuko lukeen urte osoko lan orduen etengabeko programazioa.

3. Jabegoa Udalarena izan dadila. Horrela, ikaslea bizi den ingurune eta herriaren azterketa nahi ta nahiezkoa egitera behartua izango delarik (inguru-giroko heziketa oso-tua).

4. Unibertsitaterainoko maila ezberdinak eta eskolaturiko helduak erabiltzeko aukera ukan dezatela; aisiarako hezketa.

5. Eskualdeari edota, erabilgarritasun nazionalari aplikatu dakizkiokeen ekogarapena (arloteknologikoa) eta ikerketa esperientziak sustatu beharko ditu; horrela, heziketa, gizarte berri baten benetazko eragingarritan bilakatuz.

6. Egitazko gizarte demokratiko baten zutabe izango diren ekspresio eta komunikazio tekniken experimentazio-zentruen izaera areagotu eta iraun arazi egin beharko du.



Eskema 1.

Lekune batetan elkarturiko hesparru arkitektonikoak izan daitezke (lau arlotako ekipamendu bakar bat) edota, bananduak (4 ekipamendu desberdin) baina, udal jectioaz koordinaturik.

Proposamen guzti hauek (Ikus, Eskema 1), lekune batetan kokatzea oso zaila gerta daiteke.

Horren ordeztu pentsa daiteke baitaere, hezketa jectioan elkarturik egongo diren hesparru desberdinak antolatzea eskualde osoan zehar.

Azkenik, aipatu beharrekoa, BORDA ESKOLA hauek osatuz ditzaketela proposaturiko eredu berri hauek batez ere natural eta nekazal eremuan kokatzen direlako, eta

horrela, udal hirizentruetan hasitako programazioak osatzen laguntzen dutelako.

BIBLIOGRAFIA

- CIIS. *Les Fermes pour enfants*. Paris. 1979.
 TERRADAS, J. *Ecología y Educación ambiental*. Omega. Barcelona, 1979.
 LOPEZ-ROBERTS, J. *Aprender en el campo*. Laia. Barcelona, 1982.
 Cuadernos de Pedagogía 62. Zenbait artikulak.
Una granja Creativa: La Tesla, Cuadernos de Pedagogía 74.
 BERNAN, E. *La ferme dans la ville*. Naturopa 30.

Miguel del Reguero

Itzultzaile: Irakasle Elkartea

IDAZTEN KOLABORATU NAHI DUTENAK

IZENA

HELBIDEA

TEL. HERRIA

GAIA

NOIZKO



HAUR BEREZIEN ESKOLATZEAZ

Haur berezietz hitzeginen dugunez, haur defizientzidunak, tradizionalki, zeintzu diren esateari ekinen diogu. Bereziatasunen arabera sailkatu daude:

1. Adimen urria duten haurrak.
2. Zentzu-akatsen bat edo zentzuren bat guttitua duten haurrak eta arazo neurologikodunak.
3. Psikologia edo psikiatria arloko arazoak dituzten haurrak.

Egungo egoerara, hau da, haur bereziak eskola arruntetara joan daitezzen, aurrez urrats asko eman da iritsi gara:

– Hirurogeigarren hamarkadan izan zen etxean zeuden haurren lehen eskolatzea. Haurrak *berezjak* zirenez gero, eskolek ere *berezjak* izan beharko zuketela, pentsatu zen. Berehala gurasoen lanari esker elkarteak sortu ziren; hala nola, ASPACE, SAN MIGUEL Patronatoa, ARANSGUI, A.G.I eta GAUTENA.

Aipatu eskolen artean bazen alde ederra; batzu egoki horniturik, nola materialki hala pertsonal arloan, irakasle espezializatuz osaturik.

Irakaslegoari zegokioenez ere, talde batzu homogeneitate batez sortzen baziren ere, beste batzu, kriterio zehatzik gabe osatuak izan ohi ziren.

Hasieran, atzerapen edo guttitasunaren arabera erantzutea zen helburua. Hau dela eta, garun elbarritasuna zutenentzat ASPACE sortu zen, gorrentzat ARANSGUI, itsuentzat AGI eta adimen urridunentzat San Miguel Patronatoa.

– Hirurogeitamargarrenaren amaieran, neska-mutil sail honen baztertzeaz dela eta zenbait urrats eman zen. Asistentzi normal bat izateko duten eskubidea lortzen hastea da urrats hauen funtsa. «Behenormal» hitza ere, kontzeptuarekin batera aldatzen hasi zen eta bere ordez «Desberdin» eta «atzeratua» erabili ohi ziren. «Berezi»ren ordez ere «barneratu» edo «integratu» hitzak ere gureganatu genituen.

Egun, integrazioan bada oztoporik. Oztopo materialen artean aipa ditzakegu arkitektura oztopoak. Hauk gainditzearren gobernuak bailara bakoitzeko eskola bat egokitzeari ekin dio, aszentsorea jarri eta ranpa eta komuna bereziak eraikiaz.

ESKOLA

Integrazioan alderdi honek garrantzia baldin badu, are gehiago irakasle, ikasle eta gurasoen jarre-rak.

Hemen denok gaude barne, ze lehen aipatu asistentzia normalaren eskubideaz erreflexionatzea bidezko deritzogu.

Eskola berezitan, askotan, ez zaie irakaslego espezializaturik eskaini eta ezta taldeak osatzerakoan aurrez erabakitako kriteriorik erabili ere.

Dena kate bat denez gero, aipagarriak dira Ikastetxe batzuk egiten ari diren esperientziak ere.

– Eskolatan sakabanaturik zeuden haur gorrekin, ARANSGUIK bailara bakoitzeko eskola batean, talde bat osatu du, haur bakoitzari dagokion maila eta taldea errespetatuz. Eta teknikoki haur hauentzat dauden aurrerapenaz balia daitezten eguneroko saio bat eskaintzen die irakasle/espezializatu batek.

– A.G.I.-k ere eskolan saioak eskaintzen dizkie eskoletan dauden itsu eta ikusmen arazoak dituztenei.

– GAUTENA ere, haur autistak heuren bailaran egon daitezten gela egonkorrak edo estableak osatzen hasi da.

Hau dakusagun bezalaxe, jabetu gara ere «pribilejioaren» izenean, gehien behar zuen ikasle multzo hau, edota ez guttiago behintzat, gainontzeko haurrek zutenetik urrun zegoela duela gutti arte.

Honengatik, eskubideaz dihardugunean, asistentzi normalak eskaintzen duen zerbitzuaz baliatzeko eskubideaz, diogu. Hau lortutakoan, haurra ongi aurkitu dadin eta bere ahalmenak gara ditzan, eskola egokitu egin beharko dugu. Honetarako eskolak haurren berezitasunak kontutan hartuko ditu.

Hau gerta dadin, eskolari behar hainbat laguntza eskaini beharko zaio eta ikaslego osoa baliatuko da haur berezien integrazioaz. Honetan egoki jokatzea garrantzitsua da eta ezin dugu permititu eskola haur bereziaz balia dadin hauetaz ahazturik.

Eginkizun honetan denok gaude barnean, gobernu, irakasle, guraso eta ikasle.

Irakasle eta gurasoen eginkizuna funtsezkoa izanik, askotan eta askotan ikasleak izanen dira integrazioaren zutabe nagusia. Hauk dira haur berezien eredu, bai portaeran eta baita hizkeran ere. Era berean, haientzat haur bereziak aberasgarri bilakatuko dira haur desberdinekin erlazionatzeko aukera izanez eta bereiztasunak aintzat hartuko dituzte.

Haur integratuentzat sorturiko zerbitzuaz gainontzeko haurrak ere baliatzen dira; hala nola, gela berezia, talde multiprofesionala eta zenbaitetan talde urria.

Iadanik ditugun esperientzitan oinarriturik, gelan edo eskolan haur berezi bat duten gainontzeko haurrengan, aldea nabari dela, esan dezakegu.

Elkarren aberasgarri direla, diogu beraz. Haur hauen eskolatzeak eraginda eskolak honoko laguntza hauek ditu:

1) Gela berezia. (1 edo 2 eta zenbaitetan hiru ere bai). Gela hau irekia denez, haur bakoitzaren berezitasunaren arabera ezarriko dira helburuak eta saioaren iraupena. Gela arruntean egonen da haurra ahalik eta gehien. Gela berezian ahal den guttien egon dadin beraz, helburuak eta ekintzak zehatzak izanen ditu.

2) Talde multiprofesionala. 1982-83 ikastaroan sortu ziren lehen taldeak eta ikastaro honetan 8.a osatuko da.

Talde hauek ugariagoak izan zitezten asmoa baldin bazen ere, hasiera batetan, hirukoak dira gehienak eta azkenaldian bikoak. Elemento teknikoa da. Talde honen eginkizun nagusiak, haur berezien integrazioan parte hartu, eskoletako haur berezien balorazioa egin eta integraturiko haurren jarraipena egitea dira.

3) Zentru koordinatzailea. ASPACEn kokaturik dago. Talde aholkularia da. Desagertu den San Miguel Patronatoko kasuen jarraipena egiten du. Baita Zentru Espezifikoko haurren jarraipena eta Talde Multiprofesionalek proposaturiko zenbait haur medikoki eta psikologikoki ikusi ere. Herrialdeko koordinatzailea da.

Orain arte integrazioaz mintzo ginenean, eskola berezitatik eskola arruntetara joandako ikaslegoaz ari ginen; orain multzo hau urruti da eta bapateko integrazioaz edo bere gisa eskolatutako ikaslegoa ugalduta da. Era aldatu bada ere, funtsean haur bereziak berberak dira. Haur bat eskola arruntera joan dadin erabiltzen diren datoak hauk dira:

- haurren bereiztasunak.
- Geletako kopurua (arrunta eta berezia).
- Eskolak duen jarrera.
- Sektorizazioa; haurra bere giroan eskola dadin.

Talde multiprofesionalek 3 sareetan (Publiko, Ikastola eta Pribatu) dihardute, haurrak dauden lekutan, alegia. Errealitatean ordea zera da nabarmena: Dohaintasunarekin eta publikotasunarekin lokerra hestua duela plangintza honek eta ikaslego honen gehiengo eskola publikoetan dagoela.

Margari ALKORTA

INGURUGIROARI BURUZKO INKESTA

1985go Maiatza-Ekainean, Donostian egindakoa. HERRI-AMETSA Ikastolako Ekologia taldeak prestatua. 5., 6., 7., eta 8. mailetako Ekologia-taldeak Mikel Legorburu irakaslearen ardurapean burutua.

SARRERA

Hona hemen HERRI AMETSA Ikastolako Ekologia Taldeak Donostiako ingurugiroari buruz eratu duen txostena, inkesta bat dela medio.

Azaletik gain-begiratu, ez dugu egokiegia ikusten gure ingurugiroa. Hau dela eta, gizartea nolabait aztertu behar genuela iruditu zitzaigun. Honelako txosten batek zerbaitetarako balioko zuelakoan, lanari ekin genion. Kaleko jendeari galdetu, eritziak jaso, eskaerak bildu, aztertu, ondorioak atera...

Azkenik txostenaren zabaltzeari ekingo genioke, ahal izanez gero...

Eta hona hemen.

Hilabeteko lana izan da. Astuna eta nekeza izan bada ere, alaiki eta gustora bete dugu.

Lanaren ondorioz lortutako informea Udaletxera zuzentzea erabaki zen, beretzako mesedegarri izan daitekeelakoan.

Halabaina, guk onuragarritzat jo dugu, problematika honi dexente hurbildu gaitzaizkio eta. Bestalde, inkestan parte hartu duen askok, arazo honi benetako interesaz erantzun dioenez, norberaren kontzientzi hiritarra eta izadiarekiko maitasuna sendotzea suposatu du. Honek benetan pozten gaitu. Ea, orain Udaletxeak jarrera egokiago duen!



INKESTAREN AURRERABIDEA

Ekologiari buruzko bilera batetan, ingurugiroari zegokion inkesta bat egitea bururatu zitzaigun. Aurreproiektotzat galdera batzu prestatu genituen. Inkestaren ideia beste taldeetan aurkeztu ondoren, aurrera eramatea erabaki genuen. Zein galderak egin? nori galdetu? non? nola?...; taldeka antolaturiko lana izan zen guzti hau.

Zenbait pertsonari galdetzea kalkulatu, hiru mila inkesta-paper prestatu genituen, eta azkenik, bi mila erantzun inguru jasoz gero, inkesta ontzat emango genukeela pentsatu ere pentsatu genuen.

Zer galdetu

Bi galdera ziren argien ikusten genituenak inkesta burutzeko garaian: alde batetik, ea egoki ikusten ote ditugun aurrez-aurre ditugun zuhaitz, parke, zakarrontzi, ke, auto, bizikleta, lantegiak; gutxiegi ote diren, nahikoak, gehiegi, asko,... edota, erantzuleari axola ote zaion gai hauetaz mintzatzea.

Beste alde batetik gure gizarteari buruzko eritziak eskatzea pentsatu zen: ea zer-nolakoa iruditzen zaion erantzuleari jendeak duen jarrera ingurugiroari buruz: gehiago ote dira gizatasunez jokaten dutenak? gutxiago? Guztiak ote dira zentzugabekoak? Erdixka? Erabat konszientea ote jendea daramagun arazoetaz?... Bi hauek galdera zehatzak genituen.

Beste pare bat ere burutu genituen, orokorragoak planteiamenduan, baina erantzun zehatzen bila beti ere: zer eskatuko zenioke Udaletxeari gure ingurugiroa hobetu dadin? eta, bestea aldiz, bai al duzu beste zerbait esateko inkesta honi buruz, edo beste zerbaitetaz?

Non galdetu

Donostia izan da landutako ingurua. Auzo gehienetan egin badira ere inkestak, gehienbat honako hauetan bete izan dira: hiri erdia, Alde Zaharra, Gros, eta bereziki Herrera, Bidebieta, Intxaurre eta Altzako auzoa.

Inkestak edonon galdetu izan dira; dendetan, parkeetan, etxeetan, kalean,...

Nori galdetu

Askotan zenbait gaztetxoren eritziak heldu askorenak baino argiagoak eta zentzuzkoagoak ziren arren, hamabost urtez gorako pertsonei besterik ez dizkiegu zuzendu, inkesta fidagarriagoa izango zelakoan.

Hortik aurrera adin, klase, seksu, lanbide, erlijio, eta abar desberdin luze bateko pertsonei galdetu izan diegu.

Nola galdetu

Pertsona bakoitzari galderak irakurri eta adierazi dizkiogu, eta erantzunak inkesta-paperean idatzi ere, erantzuleak aitzakiarik erabil ez zezan. Esan beharra dago gutxi ukatu dutela inkestaren erantzutea.

Inkestako galderak euskaraz galdetu izan dugu beti. Gure hizkuntza ez zekiela adierazten bazigun erantzuleak, gaztelaniaz galdetzen genion. Zein hizkuntzetan ematen ziren erantzunak interesgarri izan zitezkeela eta, inkesta-paperaren ertzean azaltzen genuen, gero aztertzekeo gai bezala izango bait genuke.

Zuzenketa

Inkesta-paperak prestatu, banatu, eta hamabost egun barru aurreneko erantzunak kontatzen eta zuzentzen hasi ginen.

Zuzenketa taldeka eraman genituen.

Osotara, mila eta zortzirehun pertsonei galdetu genien gutxi gora behera. Baten batek galderaren bat hutsik uzten zuen, erantzunik gabe alegia. Honetxegatik azaltzen dira batura desberdinak galdera bakoitzean.

Zuzenketa izan da lanik astunenetakoa. Lehenengo eta bigarren galderak zenbaki kontuak besterik ez ziren, «euskara/erdara» galdera bezala. Hala ere, hirugarren eta laugarrenak luzetxo azaltzen ziren, eritziak arlo guztiak ukitzen bait zituzten. Eritzien sailkatzea izan da lanik zabalena, askotan antzeko eritziak botatzen zituztelako, bestetan garbi ez zelako azaltzen eskaeraren asmoa, inoiz astakeriaren bat eskatzen zutelako,... Guk eskaera guztiak azalduko ditugu gure txostenean.

Hirugarren eta laugarren galdera hauetan, eritzi berdinak zenbatzen hasi ginen, zera adierazteko: zenbatekoa zen eskaera bakoitzaren indarra. Baina hasi ondoren oso zaila egin zaigu, eskaera batzu beste batzuren aldatetarik besterik ez zirelako; beste batzu aldiz, esijentzi edo eskaera bikoitzak zirelako... dena den, oso zaila kontabilizatzeko.



OHARRA

Emaitzak orokorki adieraziko dizkizuegu hemen zeren txostena egin dugun bezala oso luze gerta bait daiteke. Dena den, norbait interesaturik balego ISILIKera edota, HERRI AMETSA ikastola bertara zuzen daiteke xehetasun gehiago eskatuz.

INGURUGIROARI BURUZKO INKESTA

1. Inguru honetan dagoen biztanleen Kopuruarekiko, zein iritzi duzu ikus ditzakegun hauetaz

	GUTXIEGI	GUTXI	NAHIKOAK	ASKO	GEHIEGI	EZ ZAIZU AJOLA
1. zuhaitzak						
2. parkeak						
3. jolaslekuak						
4. zakarrontziak						
5. berebilak						
6. txirrindak						
7. lantegiak						
8. keak						

2. Kaleko giroa. Zein edo zeintzuk iruditzen zaizkizu ingurugiroari buruz gehien nabaritzen diren jarrerak:

1. gizatasunik gabekoa, degradatua
2. gehienbat gizatasuniz gabekoa
3. erdi eta erdi
4. gehienbat gizatasunez
5. gizatasunez betea

3. Zer eskatuko zenioke Udaletxeari gure ingurugiroa hobetu dadin?

4. Beste zerbait baduzu esateke...

EMAITZAK

1. Inguru honetan dagoen biztanleen kopuruarekiko, zein eritzi dugun ikus ditzakegu:



	GUTXIEGI	GUTXI	NAHIKOAK	ASKO	GEHIEGI	AJOLARIK EZ	OSORA
1. zuhaitzak	508	917	261	58	10	28	1782
	z 28'50	51,45	14,54	3,25	0'56	1'57	100
2. parkeak	445	988	265	41	12	37	1788
	z 24'88	55'25	14'82	2'24	0'67	2'06	100
3. jolaslekuak	508	904	267	54	11	39	1783
	z 28,49	50'70	14'97	3'02	0'61	2'18	100
4. zakarrontz.	330	648	541	169	62	27	1777
	z 18'57	36'46	30'44	9'51	3'48	1'51	100
5. berebilak	22	35	163	467	1085	16	1788
	z 1,23	1'95	9'11	26'11	60'68	0'89	100
6. txirrindak	313	800	414	150	79	30	1786
	z 17'52	44'79	23'18	8'39	4'42	1'67	100
7. lantegiak	184	651	417	315	198	22	1787
	z 10'29	36'42	23'33	17'62	11'08	1'23	100
8.keak	69	289	234	436	710	40	1778
	z 3'88	16'25	13'16	24'52	39'93	2'24	100

INKESTARI BURUZKO ERITZI OROKORRA

Jendearen erantzuna denetarikoa izan da: batzuk ez dute erantzun nahi izan; beste askotan, 1788k kasorik egin digute; asko eta askok benetako ahaleginak egin dituzte behar bezala erantzuteko.

Asko emozionatu ere egin da, ikusirik lan serioa egiten ari ginela. Besteek aldiz, gogorik gabe erantzun dutenek alegia, presaren arrazoia edo aitzakia azaldu izan digute.

Beste zenbaitek berriz txantxetan ari ginela pentsatzen zuten, askorentzat alferrikako lana iruditu zaie «ez bait dizuete inolako kasorik egingo Udaletxean» esaten ziguten bitartean, beste batzu interes handia agertu dute, txosten honek Udaletxean izango duen harreara on baten itxaropenaz.

Autokritika bezala, pentsatzen dugu galdera batzu hobeto zehaztu genitzakeela. Eta txosten orokor hau osatzerakoan izan genitzakeen akatsez ahaztu gabe, baina umilki, ontzat ematen dugu.

Erabat egokia ikusten dugu inkesta, baina Udaletxeak kasorik egitea falta da. Lana gogorra eta era berean alaia izan da, baina borobiltzeko ardura nabaritu beharko litzateke Udaletxearen aldetik. Argi ikusten da jendeak pentsatzen duena baina jendearen gogo onak bertan behera eroriko dira ondoriorik ikusten ez badute. Udaletxearen erantzuna baikorra izan beharko luke, gure «moralak» ere sendotu dadin. Bestela, zenbaitek dioen bezala, etsipena zabal daiteke. Udaletxearen eraginkortasunez jendea ez da gehiegi fidatzen.

Inkesta hau egiten hasi ginenean, hots, hasieran lotsa ematen zigun galdetzeak, baina gero oso gustora pasa dugu galdezka, eta ondorioak ateratzen.

Uste genuen baino euskaldun gehiagorekin topatu ginen. Erantzule gehienak helduak izan dira, langile arruntak eta etxeoandreak. Inkesta hau ontzat ematearen beste arrazoi bat zera izan da; gure hiriko arazoetaz pentsa arazi digula, alegia.

Ondorio on bat ere atera dugu: besteei zikinkeriaz galdetzerakoan, guk geuk txukunagoak izan behar dugula ere ohartu gara.

Diferentzia nabari batez ohartu gara: Emakumezkoek bijilantzia eta garbitasuna aipatzen zuten bitartean, gizonezkoek aldiz, trafiko eta lanpostuari buruz hitzegtzen zutela.

Horrelako inkesta helduek egin beharko luketela iruditzen zaigu, normalki, hauei kaso gehiago egiten bait diete.

AZKENIK

Oso gustora geratu gara lan hau bete ondoren. Orain honek erakar ditzakeen ondorioen zain geratzen gara.

Era guztietako kritikak jasotzeko prest gaude eta, kontrakoak izan arren, gustora jasoko genituzke.

Ingurugiroarekin konpromezua hartzen jarraituko gara, bitartean beste lanen bati ere ekingo diogu ahal dugun neurrian.

HAUR LITERATURAREN TXOKOA

ZER DUTE HAURREK IRAKURTZEKO?

ELKAR
HAUR LITERATURGINTZA 1986

TEO SAILA: (6-8 urte)

TEO IGERI IKASTEN (*)

EGILEA:

V. Denau

ITZULTZAILEA:

J. Ormazabal

GLOBO BERDEA, «AUKERA EZAZU ZURE LEHEN ABENTURA» SAILA: (5-7 u.)

HONTZ TXIKIA HABIATIK KANPORA (*)

M. Leonard

J. Ormazabal

URTEBETETZEA (*)

«

«

AHATETXOAK LAGUN BAT AURKITU DU (*)

M. Leonard/D. Hockerman

«

UNTXIA ETA BERE ARREBA (*)

M. Leonard/K. Schmidt

«

TXINTXINBELA SAILA: (5-7 u.) (Testu osagarriak)

ZENBAKIAK IKASI DITUT

TXILIKU

ZAZPI EGUN DITU ASTEAK

«

XAXARKO

«

IBAI SAILA: (7-8 u.)

BAI EGAZKILARI (*)

J. Ballaz

J. Ormazabal

CHARLIE RIVEL SAILA: (7-8 u.)

OINETAKOAK (*)

E. Ramón

J. Ormazabal

TXALUPA SAILA: (8-10 u.)

ARRATOIEN ZENBATZAILEA

M.D. Alibés/P. Estrada

J. Ormazabal

TXIMINO GIXAJOA

S. Calleja/J.M. Muñoz

«

GANBARAN FESTA

M.V. Moreno/L. Blazquez

«

PERKAX SAILA: (7-10)

ALADAKETEN HIRIA

P. Sagarzazu/I. Zubizarreta

BAZEN BEHIN MARINEL BAT

S. Calleja/X. Monasterio

HAIN DA TRISTE LA VIE DU TOURISTE

« «/

BOTILA BATEN HISTORIA

T. Elortza

Literatura

ITZUL SAILA: (8-15 u.)

LETAGIN ZURI (*)
 BERTOLDO ETA BERTOLDINO (*)
 JOAKINEK ARAZOAK DITU (*)
 IPUIN IROKIARRAK (*)
 NIKOLAS TXIKI ETA BERE LAGUNAK (*)
 ABEREEN ETXALDEA (*) (**)
 AMONA (*) (**)
 ELVIS, ELVIS! (*) (**)
 FANTASMATXOA (*) (**)
 MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO FAROA (*) (**)
 MUNDUARI ITZULIA 80 EGUNETAN (*) (**)
 SORGIN TXIKIA (*) (**)
 MIGEL STROGOFF (*) (**)
 TELEFONOZKO IPUINAK (*) (**)
 TOMAS TXORIMALO (*) (**)
 UTINGHAMI (*) (**)
 ETXE BAT NORAEZEAN (*)

SOR SAILA: (9-15 u.)

AMETS UHINAK (**)
 IGARKIZUNAK
 PERNANDO AMEZKETARRA (**)

TINTIN SAILA: (9-..... u.) (KOMIKIA)

LOTO URDINA (*)
 IKATZ STOKA (*) (**)
 UHARTE BELTZA (*)
 FARAOIAREN ZIGARROAK (*)
 ILARGIRA BIDEAN (*)
 ADARBAKARRAREN SEKRETUA (*)

ASTERIX SAILA: (KOMIKIA)

ASTERIX GLADIADOREA (*)
 ASTERIX JOKU OLINPIKOETAN (*)

EGILEA

J. London
 G.C. Groce
 Goscinny / Sempé
 Tehanetorens
 Goscinny / Sempé
 G. Orwell
 P. Hartling
 M. Gripe
 O. Preussler
 J. Verne
 "
 O. Preussler
 J. Verne
 J. Rodari
 O. Preussler
 M. Canela
 J. Ballaz Zabalza

M. Landa
 X. Etxaniz
 J. Ormazabal

Hergé

"

"

"

"

"

Goscinny/Uderzo

" / "

ITZULTZAILEA

X. Mendiguren
 "
 D. Urbistondo
 J. A. Agirretxe
 D. Urbistondo
 J.M. Elexpuru
 D. Urbistondo
 I. Agirre
 X. Gartzia
 D. Urbistondo
 M. Arregi
 P. Iparragirre
 J. Amenabar
 I. Agirre
 X. Gartzia
 A. Sarriegi
 I. Zubizarreta

J.M. Azurmendi
 J. Ormazabal/I. Tapia
 J.M. Azurmendi
 "
 P. Apalategi
 J.M. Azurmendi

J.M. Azurmendi

(*): itzulpena
 (**): birrargitalpena

OHARRA: EREIN eta Ikastoletako Federazioari eskatu zitzaizen beraien liburu-zerrenda, baina, ez digute bidali, beraz, ez dugu argitaratzerik izan.



BOTILA BATEN HISTORIA

Egilea: Tomas Elortza

Marrazkiak: Luis Astrain


Saila: PERKAX (7-10 urtetako irakurlegoa)

Zenbakia: 20.

Duela hamalau bat urte lehenengo aldiz kaleratua, BOTILA BATEN HISTORIA-k PERKAX saileko 20. aleari eman dio izena, eta bistan denez, botila bat bera dugu ipuin honen protagonista nagusia. Herri txiki batetako haur talde batek mundu zabalera bidaltzen du mezu bat botila baten baitan. Errekako ur gardenek lehenbizi, ibaiko ur kutsatuek ondoren eta itsasoko ur gaziek azkenik, Euskal Herritik Ertamerikarainoko txangoa bideratzen diote gure mezulariari. Ilargia, Eguzkia, Gorritxo eta beste arraiak ditu lagun botilatxo abenturazaleak, eta bidaiari zehar, menditik hirira eta itsas-ertz batetik besterako esperientziak kontatzen dizkigu: onak eta ez hain onak.

TOMAS ELORTZA oñatiarra, irakasle aritua dugu Gipuzkoako zenbait herritan, eta azken hamabi urteotan Hernanin dihardu lanean. 70. hamarkadan, bera partaide zuen GORDAILU irakle taldeak bul-tzaturik idatzi zuen liburu hau, berak dioenez: "... haurren munduan murgildurik nenbilerako, eta euskerazko irakurgai eza oso larria zelako."

Lehen argitalpenek egundoko arrakasta izan zuen (hiru mila ale berehala saldu ziren), eta harrez gero jasotako hainbat eta hainbat eskabidek hementxe dute erantzuna, oraingoan Luis Astrainek eginiko marrazkiez horniturik.



XIRULA MIRULA

Musika Hezkuntzarako Saialekua
Catalina de Erauso 12 - Tel: 463555 - DONOSTIA

ETXE BAT NORAEZEAN

Saila: ITZUL (gazte literatura)

Egilea: Jesus Ballaz Zabalza

Itzultzailea: Iñaki Zubizarreta

Marrazkiak: Valentín Cruz

Jakina da herri txikietan guztiak direla elkar ezagunak, eta ezagutza honek badituela alde onak eta txarrak. Bekaizkeria, ulertezina eta zurrumurruak, nahi baino gehiagotan gertatzen dira eta On Pedrok, "Tentea"-k, honelako giroa aurkituko du bere herrian, denbora luzez kanpoan ibili ondoren. Izan ere, aldegin zuenean, hamabi urteko alaba utzi zuen bertan, eta jendeak ez dio hori barkatu.

Egoera honek eraginik gure gizonak laku erdian bizitzea erabakiko du, berak eginiko etxetxoan. Baina kontuak ez dira hor amaituko.

Nobela honen baitan ez da "onak eta txarrak", "gaizto eta zintzo"-en arteko bereizketa sinplerik aurkituko.

Egileak, elkarbizitzeak eragin ohi dituen zenbait arazo azaldu nahi ditu, eta honekin batera azpimarratu, ez dagoela pertsona guztiz perfektorik.

ADARBAKARRAREN SEKRETUA

Saila: TINTIN

Egilea: Hergé

Itzultzailea: Joxe Mari Azurmendi

Rotulista: Joxe Mari Telleria

ELKAR-ek argitaratzen duen TINTIN-en hamabigarren abentura hau, 40. hamarkadaren azkenera plazaratu zen lehenengo aldiz.

Honako hontan, Haddock kapitainarentzat erositako opari batek, ADARBAKARRA edo unikornioaren sekretu bidean jarriko ditu TINTIN eta bere lagunak.

Besteak beste, gerora adiskide zintzo izango duten, baina oraingoan gaizkileen zerbitzari den, Nestor maiordomoa ez agutuko dute.

Eta abenturak abentura, aipatzekoa da honek duen amaiera behin behinekoa besterik ez dela, jarraipena RACKHAM GORRIA-renean bait du. (ELKAR-ek dagoeneko plazaratua)

Bi urte dira Remi Georges HERGE hil zela, eta duela egun gutxi bakarrik berpiztu da, "Tintin et l'Alph-Art" amaitu gabeko bere azken lana Belgika, Frantzia eta Suizan argitaratu dutenean.

Bere bizitzan zehar era askotako kritikak jaso bazituen ere, TINTIN-en sortzaileak Europako komikizale gehien bereganatu zituen. Amaitugabeko azken hori tarteko, 24 albun burutu zituen eta guztira 18 hizkuntzetara izan dira itzuliak mundu zabalean.

ADARBAKARRAREN SEKRETUA, euskeraz argitaratu den hamabigarren abentura dugu, eta beraz, badugu (izango dugu) beste hainbat gozatzeko aukerarik, oraindik ere..

GLOBO BERDEA saila ("Aukeratu zure lehen abentura")

-eskolaurrerako . Itzultzaile: J. Ormazabal

Irakurketa naurrarenan piztu nahirik, jatorriz ifar-amerikarra den liburu sail honek, irudimena landuerazi eta irakurketa bera abentura bilakatzen du.

Horretarako ezinbestekoa gertatzen da hezitzaile edota gurasoen laguntza.

Esate baterako orri erdiek, pizkortasuna eta ulermen globala bideratzea dute helburu, ..., baina materiale honek erabilgarritasun osoa izan dezan,

Kataluniako argitalpenean erantsitako ohar didaktikoak (jolas proposamenak) ere berekin dakartza liburu bakpitzak.

"Aukeratu zure lehen abentura" haserako irakurketa mailarako egina den bezelaxe,

ELKAR-ek laister ekingo dio "Aukera ezazu zure abentura" izeneko bilduma eza-gunari ere. Azken hau gaztetxoentzat buruturiko saila da, eta modu desberdinetan irakurtzeko aukeraz gainera, ustekabeko amaiera duten istorioek osatuko dute.

Itzulpenari dagokionez, txikien saila Joxantonio Ormazabalek itzuli du,

eta gaztetxoena izango dena berriz, Iñaki Mendigurenen ardurapean euskeratuko da.

Orain arte argitaratuak: HONTZ TXIKIA HABIATIK KANPORA

URTEBETETZEA

AHATETXOAK LAGUN BAT AURKITU DU

UNTXIA ETA BERE ARREBA

(Epe laburrera beste bi plazaratuko dira: -sagu langilea- eta

-Panda hartza galdu egin da.)


ISILIK!



TONINO (Italia)
HEZKUNTZA SERIOTAN
HARTU DUEN UDALA.

ISILIK?

pedagogia aldizkaria



HAURRA...
ELKADURA

'LANGLE' KASTOLA

PIAGET... ESKOLA BERRIA

disiplina

ISILIK.

haurra eta sexualitatea

estataletako borroka

elbira zipitria




C. FREINET

ISILIK...

pedagogia aldizkaria

3. aldia 1983. abendua 200. orria

HEZIKETA BEREZIA
HENRY WALLON
ZER DUTE HAURREK IRAKURTZEKO?



MAGISTERIO ESKOLAK

ISILIK,

pedagogia aldizkaria

4. aldia 1984. abendua 250. orria



elbitasuna

ISILIK:

pedagogia aldizkaria



0. H. Den orria eta irakurketa

Cursul Eskola Publika

ISILIK =

pedagogia aldizkaria



HEZKUNTZA BRASILEN

HEZKUNTZA SISTEMAREN ERREFORMA

IRAKASLE ELKARTEA

SARE PUBLIKORUNTZ

KUBAN HEZKETA LEKURIK GORENEAN

IRUIN ZAHARRAK AZTERTZEN

SARE PUBLIKORUNTZ

KUBAN HEZKETA LEKURIK GORENEAN

Hemen azaltzen diren aleok, IRAKASLE ELKARTEan aurkitzen dira, norbait interesaturik egonez gero, honoko helbide honetan eros daitezke.

IRAKASLE ELKARTEA
Amezqueta 12, 8.-F
20010 - DONOSTIA

Kaixo Memo;

Arratsaldeko 6ak geroztik argirik gabe jarraitzen gara. Kandelak nire ohizko lagunminetan bilakatzen ari dira eta, beraietara ohitzen ari naizen heinean, intimitatearen adierazpen sinboliko hori ere galduz doaz.

Kandelen dardar handiaz batera, eltxoen izurrite, armiarma, eta patioan iluntasunak areagotzen dituen itzal horiek guztiak, batzutan nire ideia ekologiko handiak kontraezar arazten dizkirate, hots, hozkiro, argi eta biharamoneko klaseaz erreflexionatzen dudan bitartean estalkia inoiz gehiago ez astintzeko gogo biziak sortaraziz, alegia.

Kontraezartze nabarmena naiz. Hau asko gustuzen zait, baina eraberean gogorra egiten zait, eta gogortasun hori da hain zuzen ere, egoeren erradikalitasun guztiaren arrazoin bakarra. Batzuetan badirudi jendea gogorkeria honetara ohituta dagoela, edo-ta, zernahi gauza aldatzeko ezintasunaren pisu handi batez altxatzen dela ohetik. Oso zaila da egoera honetan erdibide bat aurkitzea.

Atzo pelao hauen guraso, ama edo arduradunekin elkartu nintzen bilkura batetan, eta ez dakizu zeinen naturalak diren..., beraien ideiak bapatean adierazteko ez dute izaten inolako oztoporik... hain dira leialak! Indarrean oinarritzen dute beraien edukaziozko filosofia guztia. Ez dute nahi heuren semealabak berak bezain astakiloak izan daitezen eta, jaiotzea, haztea, lan egitea, bizitzea, eta zenbaitetan ere hiltzea hainbeste kostatzen zaienez, ikastea ere indarraren poderioz egin behar dutela uste dute. Irakasleak agindu egin behar du eta ikasleak errepikaketari ekin, ikasi arte, eta bestela «egurra».

Beste edozein metodologiak harritu egiten ditu; horrela adierazi didate: «Ande, zu ez zaituzte errespetatzen, jipoitzen ez dituzulako». Hori, pelaoenganako hurbiltzea iruditzen zait, zeren askotan ukituz, besarkatuz, beraien afektibitatea adierazteñ dute, eta nire proposamenen aurkako ideiak ere azaltzen bait dituzte erantzunetan, hori dena gurasoek errespetorik eza bezala hartzen dutelarik.

Oso gogorra gertatzen zait metodologi honen beharraz jabe araztea eta honek alde onen baliagarritasunei esker beraiek askoz finago sentituko lirakeela ikusaraztea, eta etxean ere metodo berbera erabili beharko luketela sinetsaraztea ere ez da batere zaila hots; bortxakeriaz ez erantzutea, pelaoaren jokaera gaiztoaren zergatiaz galdetzea, gosea duelako izan bait daiteke, edo parasitoak dituelako, borroka bat ikusi duelako, etxean sosik ez denean gurasoen arteko liskarrak samintzen duelako, agian...

Beraiek lantzen ari diren arloak erreflexio batzu eskaintzen ari zaizkigu landareen uztaren, pelaoen ikasketaren erritmoa, eta desarroilatzen eta hazten ari dena, inguratzen duenaren jokabideak ulertzeko. Topaketa onak direla uste dut.

Ikasten ari diren guztia ikusirik, hau da, heldutxoena irakurtzen hastear daudela eta matematika arloan aurrera pauso handi bat eman dutenez, gurasoek konfiantza osoa ipini dute nigan.

Orain arteko laudoriorik handiena, guraso baserritar batek esan zidana izan zen:

«Ande, inoiz ez dizugu ordainduko guri irakatsi diguzuna, pelaoak nola tratatu, alegia. Nire ustez goraka zihoan marra, beheruntz baitzihoan».

Memo; gizaki libreen belaunaldia sortzeke dago oraindik, eta jenerazio hau datorrenerako denon ahaleginak agerian jartzen saiatu behar dugu maila guztietan, dakarten eskubide naturala ez diezaiegun ken gure hezketa-sistema txarrekin.

Zu ikusteko gogo biziz. Idatzi. Muxu bat.

TERE

BERTSOTAN
HAURTZARO IKASTOLAKOAK
ZORTZIKO TIKIAN

7. MAILA

«Etxerako lanak»

Pasa beharko ditut
komeri gorriak:
ezpaititut egin nik
lengua-ko orriak.
Bihar izango ditut
arazo larriak,
notetan kalabaza
ikaragarriak.

Ion Doxagarat

«Nafarroa»

Nafarroa lurralde
goxoa da egiz,
bainan ez du ematen
ikusita begiz.
Egun batean hara
joango naiz berriz
asko akordatzen naiz
han daukaten biziz.

Iñigo Etxaide

«Nafarroa»

Nafarroa lurralde
goxoa da egiz,
neri gustatuko zait
ikustea berriz.
Beteta egoten da
bildots eta ardiz
Oinez nekatutzen da
eta zoaz zaldiz

Aloña Irastorza

«Irakasleari»

Tipo hau ez al degu
burutik na(ha)stuta,
irakasle bat dela
neukan ahaztuta,
eta Antton Cazabon
bereizena du ta
ta bronka botako dit
nekauen la puta!

Amagoia Garmendia

«Udazkena»

Oso aro polita
dugu udazkena,
Hala ere neretzat
ez da ederrena;
udara da neretzat
urtaro onena:
alferkeritarako
da aproposena.

Olatz Olaziregi

«Errealak»

Realak Larrañaga
du ta horregatik
ekipo ona dago
Real aspalditik.
Gu bezala izan nahi
Bilboko Atletik,
Atletik orain dago
Realan atzetik

Koldo Zubizarreta

«Tripetako mina»

Haragia jan nuen
nik gutxi egin
azala beltzatua
barruan gordina
Hadieran zirudien
nahiko atsegina,
bainan ekarri zidan
tripetako mina.

Ione Odriozola

«Lagun bati»

Tipo hau ez al dago
burutik nahastuta:
Hankean txapela ta
buruan turuta.
Honela ibiltzeko
lotsarik ez du ta,
egon behar bait luke
etxean lotuta.

Eneko Pontesta

«Lagun bati»

Egunero korrika
etxetikan dator
bertsotan oso gogor
ibiltzen zaigu hor.
Berak pentsatutzen du:
«ni neu naiz Xalbador»
Mutiko hori dugu
Iturriozko Aitor.

Asier Artola

MOTZERRA

Bere begi nabarretan
bere aitaxoren amets errepikatua
mtozerra, soro bat
mtozerra, soro bat
mtozerra, soro bat...

Bitartean
bere amatxoren
lastozko sukaldean euriak
 gosaritxo ondatzen du,
zerriek giroa kutsatzen,
txikiena biluzik
 ur zikinetan esertzen da,
labezomorroak dantzan
 bere saldaren platerean,
eta berak aitaxoren ametsa berriro
 mtozerra bat, soro bat
 mtozerra bat, soro bat...

Etxetik irteten da
miseriaz jantzia
amets ederrez apaindua
eta sukar paludikoak akatzen duen bitartean
bere aitaren ametsean murgiltzen da
mtozerra bat, soro bat,
mtozerra bat, soro bat,
mtozerra bat, soro bat...

MTA!

Haserrekor
zikin eta usain txarrekoa
baina begirada sakonekoa.
Oinazezko begi tristeak
erantzun zuzena itzultzen dutenak,
Bere ahoan
bere haserrea
aldarrikatzen duenaren abotsa;

MTA!

()

Gilbor puzturiko tximinoa
oihuz betea.
Isilerazitako eztarria
begi handietakoa.
Isiltasuna amesten duzu
mila urtetako
historia duen leizezuloa bezala
Jipoiak zure bizkargainean kolpatzen dira
inorengandik laztandua
eta etorkizunik gabeko zure urratsek
hotsik gabeko mezua bidaltzen dute.

JABIER NAIZ!

Taldean ikusi nuenean
galduta zegoela iruditu zitzaidan.
Horail-horaila, itsas koloreko begiak
txokolatez inguratua.
Atzerriko limosnatxoa zirudien.
Une batez, nire desioak nahas zitezela utzi nituen
eta arazorik gabeko haur batekin
amets egin nuen
ongi elikatua,
identifikatuko zuten gurasoekin,
etxean maitatua;
baina errealitateak berriro
engainatu egin ninduen.
Deiturarik gabeko izen bat doi-doi
beste zenbait haurride arteko bat gehiago.
Bere gorputz txikia
nortasun mikroskopikoa hartuz zihoan.
Bere aihotz bortitza
ongi zorroturiko lapitza.
Taldean ez zen nabarmentzen jada,
behin eta berriro
bere nortasuna oihukatzen zuen
haur latindar bat besterik ez zen:

JABIER NAIZ!



Eusko Card

Zeure Kutxazain berezia
egun eta gauez, edozein ordutan.



Ez al duzu izan inoiz diru-beharrik arratsalde erdian?

Edo gauerdian?

Ez al zera gertatu diru-premian jaiegun batetan?



Behin baino gehiagotan gertatu zaizu, noski, horrelakorik: eskuartean dirurik ez eta gure kutxa hertsirik.

Horrelakoetarako, gure Erakundeak irtenbide egokia eskeintzen dizu eta EUSKO CARD deritzo, Lan Kide Aurrezkiko Kutxazain berriak, alegia.



Gure Bulegoetan zure EUSKO CARD
Txartela eska ezazu.

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA

Euskadiko Kutxa

